

IX URTEA - II ZENBAKIA

1928 JORAIŁA-GARAGARIŁA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ARKIBIDEA

ESAERA-ZAŁAK

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

NAPAÑOAK ERIZKIZUNDIARI ERANTZUN DIONA

MENDIBURUREN ADIZKIAK ETA IDAZTANKERA

R. M. Azkue-k

BILBO'N
Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 5

DONOSTIA'N
San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA
Banco de España, 3
BILBAO - 1928

ESAERA-ZARAK

III

Agur, Irakurle!

Ona, esaera-zařen nere irugařen sala. Eta ezta azkena izango naski, oni ere abegi ona egiten ba-diozu.

Gure eřiaren jakinduri aundiā, onetan, lengoetan baño ere argiago ageri dalako, atsegīna artzen dut, au zure eskuetan jartzean. Lengo bi salak ez ba-zaitue berotu, onek biotza kilikortuko dizula nago.

Zeñen aundi dan, gero gure eřia!

Eřia, gizonaren antzean, bere buruz bear da neuritu. Zenbat eta buruz jantziagoa, orduen eta aundiagoa. Eta bere kabuz onen esaera biziak, onen esaera bikaňak eta ain mamitsuak asmatzen dituena, eři aundiā da. Eta eři onek gureak baño erakustun oberik izan eztuenean, eta ala ere onen asmaketa ařigařiak dakazkinean, ainbat ařigařiago azaltzen da nere begietan.

Beti ařitu izan nau gure eřitařen elizkoitasunak, beren langiletasun eta zintzotasunak. Baño zergatik? esango dezute.

Ona zergatik. Gure eřitařak eztute izan erdal-dunen antzean santuen bizitzarik beren eskuetan. Auek eztute ikusi beste izkuntzetan ainbat liburu on, onbideak ikasteko ere. Nondik, ba, gure eřiaren elizkoitasun, langiletasun eta zintzotasun berdingabe ori? Gure eřietako Apaiz jaunen lanari eskeřak? Oni ere asko zor zaio naski.

Baño gure eñiak, irudi zait, berak oratutako opiletik jaten zuelako ta oren opil ona bere umeai beti jatera eman izan dielako, eñi au ainbat berezi dela bestetatik.

Esaera-zañak ziran gure eñiko ume guziak jaten zuten opil ori. Oiek, agozago ikasten zituzten aurak aiton-amandre ta gurasoengandik. Ta auek beren aurai ta auren aurai jatera ta edatera ematen zizkien ogirik oberena ta ardorik beren biotzen bizkorgañi-enetako, ta oñi eskeñak eldu zaizkigu guganaño.

Argatik gure esaera-zar auek itzegiten digute obekienik gure eñiaren ontasunaz eta gure auréko guzien biziera ikasgariaz.

Ardo ona, zenbat eta zañagoa orduen eta obegoa izaten da. Ta alaxe dira esaera auek ere.

Gorde ditzagun, ba, ardo zaña gordetzen dan eran. Edan dezagun beroietatik eta emaiegun edatera gure ingurukoai ta gure eñiaren zintzotasunak obeki iraungo du.

Oraingo auek ere geienak Apaiz-etxetan bilduak ditut, edo Apaiz jaun berai edo beren neskame, edo berekin zeudenen batzuei. Baztan'goak, Arizkun'en, Eñatzun eta Gartzain'en bilduak dira. Ultzamakoak, Lizason, eta Arakilgoak labar, Irañeta, eta Era-son; Imozkoak ere bere ortan; Lizañagakoak labar-en eta Araiz'koak Eñazkin'en eta Leitzekoak ango Idazkari (Secretario) jaunaren Andre argiari artuak.

Oiek guziak jakitera eman dizkidatenei nere biotz-biotzetik eskerik asko.

ESAERA-ZAÍRAK

III

Ez izatea, ori duk ori, beltza.

(AN. Araiz). La carencia sí que es cosa triste.
(Sentido moral).

Otsoak eztu bere aragirik jaten. (AN. Araiz).
Otsoak otsoari gaitzik ez, eta lapurak lapurari laz-
tan (1).

Cada cual favorece a los suyos. (Sentido moral).

Makil autsiekin ez oien tartean sartu.

(AN. Araiz). No te metas entre ellos con palo
roto. (Sentido material). No te fies de ellos. (Sentido
moral).

Telatupe batean bizi direnaz ez fiatua.

(AN. Araiz). (Tiene el mismo sentido moral).

Kale paíandan ibiltzeko edeára.

(AN. Araiz). Bueno para andariego.

Prantziko zakile zirudik.

(AN. Araiz). Parece la verga de Francia. (Sentido
material).

Iñoi gelditzen etzenaz esana.

(1) *Manual de conversación castellano-euskerá*, por D. Isaac López-Mendizabal, Tolosa, 1918, p. 262.

San Juan Bautista
urtean bi aldiz balitze :
Ama Birjiña uríko,
iñoz ez al duk etoríko.

(AN. lar.) San Juan Bautista, ojalá fuera dos veces al año; Virgen de Septiembre, ojalá no llegue nunca. (Decía uno al terminarse las fiestas de San Juan en su pueblo). El avaro gusta de recibir, pero no de dar. (Sentido moral).

Nai ba-dezu il senaŕa,
emaiozu urdai zaŕa,
gazta zaŕa ta ardo zaŕa.

(AN. Araiz). Si quieres matar al marido dale tocino viejo, queso viejo y vino viejo. (Frase irónica).

Etxean jan eta kanpoan lan. (AN. Araiz). Auzelan, etxean jan eta kanpoan lan.

(AN. Arakil). Comer en casa y trabajar para fuera.
(Lantxuri danaz eta auzelanaz esaten da).

Arto beroaren usaia aritzen dut.

(AN. Araiz). Percibo olor de borona caliente. (Sentido material).

(Bere burua audi egiten duenaz esaten da).

Gaztañe mentolatzaren mokadue,
áraultza goríngoaaren pare.

(AN. Araiz). El bocado de castaña *mentolatz*, sabe a yema de huevo.

Eguerdi bezperako gauerdin zer aize, uŕengo temporetaño aize ure.

(AN. Laŕaun). Cual es el viento de la media noche de Navidad, tal es el que reina hasta las siguientes temporadas.

Eluré, ari du, eluré,
artzai kapelu makuré.

(AN. Laŕaun). Nieve; mal abrigo para el pastor.

Putze izan ezta, puzkar uste.

(AN. Araiz). Cree ser lo que no es. (Sentido moral).

Iltzea edozeñek egiten dik;
bitezean zeudek komedik.

(AN. Araiz). El morir nada cuesta, lo que cuesta
es el vivir.

Azi-zabalizalea duk ori.

Ese es un sembrador. (Sentido material).

(AN. Araiz). Ese no sabe tener secretos. (Sentido
moral).

Emen jendea lo zegok; eta esnaratu baño len, bota
bear dik aŕie.

(AN. Araiz). Aquí aun está dormida la gente y
conviene echar la piedra antes que despierten. (Sen-
tido material). El negociante tiene que adelantarse.
(Sentido moral).

Balitz eta ba-genduk, etxea artoz betetzen eztu.

(AN. Araiz). El si fuera y si tuviéramos no llenan
la casa de maíz. (Sentido material). La acción y no las
conjeturas enriquecen la casa. (Sentido moral).

Balitz balitzate...

(AN. Basaburua). Por si acaso...

Oberena txar asko.

(AN. Araiz). El mejor es bastante malo. (Se dice
cuando a un elector se le ofrecen personas u objetos
que no le pueden satisfacer).

Arbola txikien,
egurá eíaz egiten. (AN. Araiz).

Arbol apalian,
aixe egiten da egurá. (AN. Baztan).

Arbol igañian,
aixe egiten da eguré. (AN. Lizaso).

Del árbol pequeño fácilmente se hace leña. (Sentido material) Del pobre cualquiera se burla o le hace injusticias. (Sentido moral).

Agiñean miñ dabenak miia ara (1).

El que le duele el diente, lleva la lengua a él.

Min dauken lekure
eramatzen da eskue. (AN. Araiz).

Non den miña,
an da mia.

(AN. Basaburua). Donde duele, allá se lleva la mano, la lengua. (Sentido material). Cada cual habla de sus penas o pérdidas. (Sentido moral).

—Ago ixilik, eguerí laugañena.

(AN. Araiz). Cállate, cuarto día de Navidad. (Sentido material). Qué inocente eres! (Sentido moral).

—I, zer tabernari aiz? Ez tabernari, bai tabernari, bueltako pilota dirudik.

—Qué tabernero eres tú? Pareces y no pareces tabernero; te pareces a una pelota de vuelta. (Sentido material). Qué tabernero eres tú, que no me quieres vender? Eres como pelota que se da de vuelta, la cual no vale nada para los jugadores. (Sentido moral). (Esto decía un beodo a un tabernero).

(1) *El Refranero Vasco*, t. I. «Los Refranes de Garibay», p. 41, por don Julio de Urquijo e Ibarra.

—Bost ontzuréko bat balego?

—Balego, gu baño goizago jeike zen ordea.

(AN. Araiz). Si tuviera cinco onzas de oro? —Ah! pero él si tuviera, se levantó antes que nosotros. (Sentido material). Para vivir cómodamente, es preciso espabilarse. (Sentido moral).

Ezer ez, ta pesta.

(AN. Araiz). Arman una tempestad en un vaso de agua. (Sentido moral).

—Qué tal? —Ez ure ta ez metal. (AN. Laíraun).

Asto iru petral. (Lizaíaga).

—Qué tal? —Ni fu, ni fa.

Belar asko, negu asko.

Belaír gutxi, negu gutxi.

Belaír ez? Bearík ere ez.

(AN. lar.) Mucha hierba, mucho invierno; poca hierba, poco invierno; no hay hierba? Tampoco necesidad.

Urek ekaña, urek eraman.

(AN. lar.) Según viene la riqueza, así se va.

—Martxo zerpiletue: ik konponduko dituk, Imotz, Basaburu ta Laíraun baleat!

—Itzultzen ba-nakik beñiz,

erékak beteko fiat geliz.

(AN. lar.) Cuando en Marzo hace mal tiempo y Abril sigue sus pasos, es temible que las vacas mueran de hambre. (Sentido moral).

Orék eztik atxiak - matxiak baño fundamentu geiago.

(AN. Arbizu). Ese no tiene más fundamento que una mariposa.

Txantxangorriak baño buru geiago eztik orek.

(AN. Arbizu). Ese no tiene más talento que el petirrojo.

Eztuk gelditzen mutiko ori, eriñirite baño geiago.

(AN. Arbizu). Ese niño no para más que el reyuelo.

Txatar begi gorri!

Urtean bein etorri!

Sekula ez etorri!

(AN. Arbizu). Dicho burlesco que los niños gritan a las máscaras.

Antzara peñatzerat, zuen sainga, lausengu ta gezur guziekin!

Marchad a la chafaina con vuestros ladridos, lisonjas y mentiras. (*Eskualduna* del 10 de Marzo de 1925).

Antzarak peñatzik. (Arano).

Eztut hortaz axolarik, yazko aizeaz baino gehiago.

Por eso no me importa, más que por el viento que el año pasado soplaban. (*Eskualduna* del mismo día y año).

Eztie oski zolaren igatzeko bidia eginen.

No harán tanto camino, como para gastar la suela de su zapato. (*Eskualduna* del mismo día). Son bien falsos para andar. (Sentido moral).

Oñatzak baño ariek luziago bear du.

(AN. Baztan). El hilo ha de ser más largo que la aguja. (Sentido material). Alguno tiene que tener más paciencia que el otro, o hay que sufrir. (Sentido moral).

Egonean egoneran, azkeneko erditxi du.

(AN. Ulzama). Al fin y al cabo ha conseguido.

Ori duk zopak eta furút.

(AN. Ulzama). Ese con nada se contenta.

Baserítar kalezale, etxe ondatzale.

(AN. baz.) El casero callejero, arruina la casa.

Ogi joŕan ari nai eztuenak, olo joŕa arápatzen du.

(AN. baz.) Al que no quiere una taza, se le da taza y media. (Sentido moral).

Lo-murken nengoan.

(AN. Baraibar). Estaba dormitando.

Degun gutxi, degun beti.

(AN. Baraibar). Aunque sea poco, tengamos con qué vivir.

Gezur esan nun Getarin,
ni orduko ue atarin.

(AN. Baraibar). Más corre la mentira que el cojo.

Arbi eŕea Abenduko,
nor bere denborako.

(AN. Leitza). Cada cosa a su tiempo
y los nabos en Adviento.

Letraduak ba-daki,
probatuak obeki. *

(AN. Leitza). La experiencia es madre de la ciencia.

Ur joanari ez egin presik.

(AN. Leitza). No te duelas de lo que no tiene remedio.

Magdalena bero,
gaztañen aro.

(AN. Leitza). Si hace calor por Santa Magdalena, habrá castaña.

Bidondoko arbola
Abenduko izára,
ostatuko neskatx edera. (AN. Leitza).

Como el árbol de junto al camino, y la estrella de Diciembre, es la muchacha hermosa en una taberna..

Ziltzike-maltzaka zebilen beti ta ala malakatu zuen zun guzie.

(AN. Latasa). Andaba enredado entre muchos negocios, y así lo perdió todo.

Usteak erdie utse du (1).

(AN. Baraibar). En la esperanza está el peligro.

Non da nere gogoa,
an da nere zangoa. (AN. Baraibar).

Non da besta,
non da beñe,
an da nere kirale. (AN. Lizaso).

Donde pongo el corazón, allá van mis pies.

(1) Cuatro variantes trae el Sr. Urquijo en la obra citada, p. 19.

Peru galtzagorí ikusi diat!
Qué hambre he pasado! (AN. Baraibar).

Apirile biribile,
Zeríe urdandegien ille.

(AN. Araiz). Cuando todo Abril es igualmente frío,
el cerdo muere en su choza.

Ni jaio nintzen biko,
ta ezin izan lauko.

(AN. Araiz). Dios me dió dos talentos, y no puedo
tener cuatro. (Sentido material). Nadie da lo que no
tiene. (Sentido moral).

Eri ontako zenbait atso,
gaur bezela atzo.

(AN. Araiz). Las mujeres de este pueblo, son hoy
lo que ayer.

Apezak meza eman zun:
Bere beará egin zun.

(AN. Leiza). El sacerdote ya celebró la Misa: ya
cumplió su obligación. (Sentido material). Conseguí-
do lo que se pretende, pronto se olvida del bienhe-
chor. (Sentido moral).

Denbora onek beste bat ekaíko dik.

(AN. Leiza). Este tiempo traerá otros. (Sentido
material).

Diru gutxikin aberasten dena,
agudo pobretzen da.

(AN. Leiza). El que con poco se enriquece, pronto
se empobrece. (Se dice del que no sabe retener una
peseta).

Eluie dagoanean menditan
aize otza eítan.

(AN. Leiza). Cuando en los montes hay nieve, no
falta viento frío en los pueblos.

Munduan iru gauza galtzen dira alperik:

Pobream arázoreoa,
Mendiko egur igará
ta eroaren indára. (AN. Leiza).
(Alperaren indára). (AN. Laíun).

Tres cosas se pierden inútilmente en el mundo :

La razón (que asiste al) del pobre,
la leña seca del monte
y la fuerza del demente y del perezoso.

Zenbat Andre on,
ainbeste etxe on. (AN. Leiza).

Etxeko Andrea nolako,
etxealdea alako. (Betelu).

Zenbat etxe on,
ainbeste gizon on. (Arano).

Cuantas son las señoritas buenas, tantas son las
casas buenas. (Sentido material). Cual es la dueña
de una casa, tal es la casa misma. (Sentido moral).

Etxe uts
asáre uts.

(AN. Leiza) (1). Donde no hay harina, no falta
tremolina.

(1) Etxe utsa, asáre utsa, *Manual de Conversación*, I. L. M., p. 254.

San Bizentez otz;
neguaren biotz.

(AN. Leiza). Por San Vicente hace frío, porque es el corazón del invierno.

Azaroa due; azaroa zuen.

(AN. Leiza). Están layando para la siembra del trigo; estaban layando para la siembra del trigo.

Záfari ibiltzeko ta aurári egoteko esatea, berdin dira.

(AN. Leiza). Decir al anciano que ande o al niño se esté quedo, son lo mismo.

Gero da bero.

(AN. Leiza). Al freir será el reír.

Ezta ori artaldean den bildotsik oberena.

(AN. Leiza). No es ese el mejor de la majada.

Lengo otsokumek bezala: oberena gaizto asko.

(AN. Leiza). De esos puede decirse lo de los lobeznos antiguos: el mejor es bastante malo.

Lenago ikusten da besteren partza, bere zoŕie baño.

(AN. Leiza). Antes se observa la liendre en la cabeza ajena, que el piojo en la propia. (Sentido material). Antes vemos los defectos ajenos que los propios.

Danboliñek dio: Ezkontza ona diu (diagü)
ezkontza ona diu.

Bioliñek atzetik: Gero ikusiko,
gero ikusiko.

(AN. Leiza). En las bodas el tambor va diciendo:
qué buen matrimonio, qué buen matrimonio. Y el
violín dice detrás: después se verá, después se verá.

Ezkontza aúrean aldapa guziak zelai.

(AN. Leiza). Antes del matrimonio no se ven las
dificultades de ese estado.

Zartagie soñutan
eríe pestetan.

(AN. Leiza). Cuando la sartén chilla, algo hay en
la villa.

Elkartasuna, andreakin bakařik.

(AN. Leiza). El consorcio, solo con la mujer.

Pobrea, zeruko lorea:
aberatsa, infernuko suatsa. (AN. Leiza).

(Aberatsa infernuko legatza). (Donosti).

El pobre, es flor del cielo: el rico, árbol del infierno.

Paŕa ta maŕa, astoakin ezkondu beaŕa.

(AN. Leiza). Tras alegre noviazgo, viene un triste
casamiento. (Sentido moral).

Ire burue goberna zan: gizonak otea ere janen din.

(AN. Leiza). Gobiérnate a ti misma, que el marido
comerá hasta la árgoma. (Consejo que daba una mala
madre a su hija casadera).

Oazala, etxeko abea.

(AN. Leiza). La colcha es sostén de la casa.

Txantxarie baño geiago gelditzen eztena duk ori.

(AN. Leiza-lar.) Ese no para más que un trombo.

Uf urtea,
elur urtea.

(AN. Leiza). Año de avellanas, año de nieves

Alaba bat, alaba ona:
Alaba bi, alaba onak:
Alaba iru, amakin,
Añe lau lapuákin.

(AN. Leiza). Una hija, buena hija: dos hijas, buenas hijas: tres hijas con la madre, el padre entre cuatro ladrones.

Atxoat! Atxoat!...
Zára ta faltxoat!...

(AN. Leiza). (Frase burlesca que los niños gritan a los enmascarados).

Ogi efe berí,
etxeen kaltegarí.

(AN. Leiza). Casa de pan tierno, casa sin gobierno.

Janak, ondo edana:
aseak zear etzana.

(AN. Leiza). La buena comida pide buena bebida: y la hartura, el descanso cómodo.

Danbolin ordainduak soñu (1) txaára: jotzen du.

(AN. Leiza). El tamboril ya pagado, tiene mal sonido. (Sentido material). El jornal adelantado es un peligro para el amo. (Sentido moral).

Etxeak, ate bat eta nagusi bat.

(AN. Leiza). La casa sólo ha de tener una puerta y un amo.

(1) *Manual de Conversación*, por D. Isaac López-Mendizabal, p. 252. Tolosa, 1918.

Idiak miñ, eta gurdiaik soñu. (AN. Leiza). Astoak atx egin beaŕean makilek. (Imotz). Idiek nekatu ta orgak erausi. (AN. Baztan).

Se hiere el huey y suena el carro. (Sentido material). Se queja quien menos motivos tiene. (Sentido moral).

Aire ona etxeain (etxearen) goratzeko!
(AN. b.) Buena manera de sostener la casa.
(Frase irónica).

—Zer da iltzia? —Atsa atratzia.
(AN. Lizaso). Qué es morir? —Salirse el alma del cuerpo.

Ero, baño bero.
(AN. Ulzama). Ande yo caliente y ríase la gente.

Min duenak atx ifen (egiten) du.
(AN. Lizaso). Quien se queja, es porque le duele.
Min artzen duenak otx egiten dik. (Arano).

Egalik gabe egátu nai duena.
(AN. Lizaso). El que quiere volar sin alas.
(Dezaken baño geiago egin naiez guzia galtzen duenaz esaten da).

Autsok, ekarko fute loiek.
(AN. Lizaso). Estos polvos traerán lodos.

Emen eldu naiz,
bañoq bildur naiz,
penakin biziko naizela maiz.

(AN. Lizaso). Aquí vengo, pero temo que he de vivir sufriendo con frecuencia.

(Ezkonberíaz esaten da).

Suduñetik agora eztaki idukitzen.

(AN. Lizaso). No sabe disimular cosa. (Sentido moral).

Aize ta eurie, axarien eztaie.

(AN. Lizaso). Agua y sol, boda de raposos.

Kanpoan uso ta etxean otso. (Arakil). Kanpoan goxo etxean otso. (AN. Lekunberri). Kanpoan sartu ta etxean deabru. (AN. Baztan) (1).

Afuera es cordero y en casa lobo. (Sentido moral).

Eri luzea, kanpokoak aztu ta etxekoak aspertu.

(AN. Arakil). Al enfermo duradero le olvidan los ajenos y tardan los de casa.

Tiru-liru kantatzen du miruek, urek ekaři ardoak eraman, ařantzalen diruek.

(AN. Lizaso). Tiru-liru canta el milano, el agua trae y el vino lleva los dineros del pescador.

Jainkoak joko al du biotzean!

(AN. Baztan). Ojalá mueva el Señor su corazón.

Maiatzak ere bear fu (ditu) bere lasto parteak.

(AN. Imotz). También Mayo exige reservas de forraje. (Sentido material).

(1) «Atean uso etxean otso, alako bizikera gaitzo», *Manual de Conversación castellano-euskeru*, por D. Isaac López-Mendizabal, p. 250, Tolosa, 1918.

Maiatzaen erdie otzak iltzen
beste erdie eguzkik kixkaltzen.

(AN. Imotz). La mitad de Mayo muriendo de frío,
y la otra mitad abrasados de calor.

Kandelera plora, negue joan da fora. (AN. Imotz).
Si Candelera flora, el invierno fuera.

Ba-gendu, bagendakike! (AN. Ezkuña).
Si tuviéramos podríamos componer.

Ez izana, izen txaña.
(AN. Arakil). El nombre de pobre es triste.

Lapurák, alderdi igaña.
(AN. Arakil). El ladrón tiene su fallo o su descuido.

Xoxuak eztu, gero, beti sasi berean kantatzen.
(AN. Arakil). El tordo no canta siempre en la
misma mata. (Sentido material). La suerte cambia
con facilidad. (Sentido moral).

—Ekar zak gaztain bet. —Ibil zak ezpain bet.
—Ekar txek (itzak) bi gaztain. —Ibiltxek (itzak) bi
ezpain.
(Frase irónica de entre niños).

Etxeko andrea nongo, pestaldeak ango.
(AN. Imotz). A las fiestas acuden los parientes de
la dueña.

Besteren miñek eztu negañik.
(AN. Imotz). El mal ajeno no hace llorar.

Danbolin berriak, soñu eder.
(AN. c.) Pandereta nueva, buen son. (Sentido
moral).

Eliza urbil ta aldaria urún.

(AN. Baztan). La iglesia cerca y el altar lejos.
(Sentido material). Viven cerca de la iglesia, pero
poco se conoce. (Sentido moral).

Elizondokoak, mezara azkenekoak.

(AN. Araiz). Los más cercanos a la iglesia, los
más tardanos a la misa.

Otsoak mutuŕe otza dik. (AN. Imotz). Beárik,
mutuŕe beltza. (AN.)

El lobo tiene el morro frío. (Sentido material). Hay
ocasiones en que hay que poner toda la carne al
asador. O también «la necesidad obliga».

Biziak, iltzia berekin zor.

(AN. Baztan). Al viviente preciso le es morir.
(Sentido material). Nadie se escapa de la muerte.
(Sentido moral).

Altsu - maltsu, denak berdintsu. (AN. Baztan).
Jaltsu ta Altsu (1), biak igualtsu. (Benaparaoa). Bata
bertzeakin, tripota ertzeakin. (AN. Baztan).

Todos son iguales o poco se llevan. (Sentido
moral).

Eztire oiek guziek, afalondoko kontuek.

(AN. Baztan). Todos esos no son cuentos de tras-
nochadores. (Sentido material). Qué verdades tan
grandes! (Sentido moral).

Aŕi ta makila erabilitzen due.

(AN. Araiz). Le hacen trabajar como a un bruto.

(1) *Jaltsu* y *Altsu* son dos pueblos de aquella región.

Arí; lau zango ta bi belarí: urez ase-ta eman zak pausoa larí.

(AN. Araiz). Arre, cuatro patas y dos orejas: da buen paso, pues estás harto de agua. (Apóstrofe al burro flaco).

Arbol txaŕak itzal gutxi.

(ANO. Aezkoa). El árbol pequeño, poca sombra. El pobre poco puede. (Sentido moral).

Ur geldiek, saltorik aundienak. (AN. Baztan). Ur ixilek, salto aundiye. (AN. Lizaŕaga).

Del agua mansa, etc. (Sentido moral).

Urak egin zuen eta suak ba-darama. (Benaparaoa).

El agua la hizo y el fuego la lleva.

(Ostalari batek, bere etxea eŕetzen ikustean esana).

Aran urtea, elur urtea.

(AN. Arakil). Año de arafiones, año de nieves.

Ezta ori nere ardien bildotxa.

(AN. Baztan). Ese no es cordero de mis ovejas.

(Sentido material). Esa no es lechuga de mi huerto.

(Sentido moral).

Txeŕi zaiñe, sukaldeko zokoan, arto puske kolkoan.

(AN. Baztan). El invierno malo mata al ganado y al ganadero. (Sentido moral).

Su-pinŕaŕa dariola dago ikatz ori.

(AN. Baztan). Ese carbón está chisporroteando).

Nolako toxoa, alako pipa. (AN. Baztan). Nolako Perutxo, alako Maritxo. (AN. Irañeta). Galtzazar bantendako, gonazar bat ezta faltako. (AN. Sakana).

Tal para cual. (Sentido moral).

Akeáren adaíra baño gogoragoa duk ori.

(AN. Baztan). Es más duro que el cuerno del chivo. (Sentido material). Es un avaro. (Sentido moral).

Bizian etzuten, ba, ikusi nai zangopekooa baño geiago.

(AN. Baztan). En vida no lo apreciaban más que a su calzado.

Begiko zikiñe baño geiago eztute ikusi nai.

(AN. común). No le quiere ver. (Sentido moral).

Dagonean dagonarekin bear da.

(AN. Araiz). Hay que contentarse con lo que haya.

Itzbestea egin da utzi nau.

(AN. Araiz). Ha cambiado de conversación y con eso me ha dejado.

Entzun goŕa egin dit.

(G. Alegia). Se ha hecho el sueco.

Aidea burun, eta ibili mundun.

(AN. Laŕaun). Andar hecho un vagabundo.

Nolako eguré, alako ezpala.

(AN. común). De tal palo, tal astilla.

Egur ona arian ezagutzen da.

(AN. Madoz). La buena madera se conoce en el filamento. (Sentido material). Al buen hombre en su carácter. (Sentido moral).

Ari oneko eguña duk ori, beretik ateratzeko.
(AN. común). Buena tema tiene ese para ceder.
(Sentido moral).

Bere ariari eutsiko ziok orek.
(AN. Madoz). Ese no saldrá de sus trece.

Eguzki txuri, arátseko euri.
(AN. Laíraun). Cuando al amanecer el sol es
blanco, llueve para la noche.

Kandelera, mandelera,
bost ilabete laírañera,
sei ere bai, Laíraungora,
zazpi're bai, Uitziko'r'a.

(AN. Araiz). Sea que por Candelera esté el tiempo
bueno o malo, para las trillas faltan cinco meses,
para Laíraun seis y para Huici siete.

Ostots urtea, arto urtea.
(AN. Araiz). Año de truenos, año de maíz.

A zer baba-lastoa den ori!
(AN. Baraibar). Cuan largo y débil es.
(Luze ta aula deneko).

Orixen dun, ba, ez izan ta bai uste, sasipeko masuste.
(AN. Baraibar). Ese es lo que no se pensaba.

Joaquina motza,
biar izotza,
etzi eluŕe,
ba-nun bilduré.

(AN. Albiasu). Auŕai esaten zaie gaixtakeriren bat
egiten dutenean.

Or eldu duk nere anaia Martxo, eztikana utziko,
ez ariko t'ez artxo.

(AN. Osteritz). Ahí viene mi hermano Marzo, que
no te dejará vivo ni cordera ni cordero.

Ilbeltza txuri,
ez ardi t'ez axuri.

Cuando todo Enero pasa nevado, no queda ni
oveja ni cordero. (AN. Lizaáaga).

Beste lanik etzekañak, bere etxea bañatu zuen.

(AN. Lizaáaga). El perezoso no tiene idea buena.
(Sentido moral).

Aundi guziek bano,
txiki guziek ñaño.

(AN. Lizaáaga). Todos los largos son vanos, y
los pequeños enanos.

Neskatx polif, andre txar.

(AN. Lizaáaga). Joven siempre ataviada, no es
buena mujer. (Sentido moral).

Euskerasko eŕian
erderaz mintzatu;
Doŕauko tomatia,
ezta ongi portafu.

(AN. Lizaáaga). En pueblo vasco hablar en caste-
llano no está bien hecho.

Txapel batekin bi buru ezin estali.

(AN. Lizaáaga). Con una boina no pueden cubrirse
dos cabezas. (Sentido material). Con poco dinero
no pueden comprarse muchas cosas.

Naparó'ak Erizkizundiari erantzun diona (Yaraipena)

III. ITZ BATZUEN ERABILKERA

1. *Euskara* 10 efitan
uskara 23 »
oskara 1 » (Ituren).
eskaura 4 » (Amaiur, Arizk, Luzaid, Urdi).
euskera 11 » (Sakan, Geien).
uskera 10 » (Esterib, Ulzun).
auskera 6 » (Sakan).
euzkera 1 » (Añaiz).
uzkera 1 » (Lizas).
eskaura 1 » (Alsas).
eska(r)a 1 » (Azpir).
2. *Euskalerí* 23 »
uskalerí 29 »
oskalerí 1 »
eskualerí 6 »
euskelerí 3 » (Oster, Beorbu, Arbiz).
uskeleterí 2 » (Nabaz, Lizas).
auskalerí 5 »
auskelerí 1 » (Irañet).
eskuaera erí 1 » (Alsasu).

Oar. Oargafi da *erí* itz onen sena = *tierra, trozo de tierra, campo*. Eria = *pedazo de tierra* (bidang); iria = *pueblo* (bid). Artoefi = *trozo, lote, campo de maíz*, ilafefi = *campo de arvejas*, gariefi = *campo de trigo t. a.* Zibefin. Baita Abaireg, orozbet, espar, ainizio. Efeun-efia = *tierra de un robo = robada esaten da agitz*. Ereuaren efia; *ereuin erié* (Uitz).

- Iruñ-efia = *la cuenca de Pamplona* (Olo).
3. *Adiskide* etc. Eri guzietan *s-sekin do x-ekin*.
Areskide (bid).
 4. *Zazpi* Eri guzietan *z-rekin*.
 5. *Guzti, guzi* Eri guzietan *z-rekin*.
 6. *Gazte* » » (Iribefin *gazte ta gaste*).

7. *Asteazkena* Efírik geienetan. Bakar batzutan astizkena, astazkena.

8. *Aberats, abrats* Efi guzietan *ts*-reki. Olo-n *abrasha*.

9. *Bizartzu* 53 efítan

bizarzu 3 » (Áfut, Yaben, Beramend).

bizartsu 17 » (An emenka).

Oar. Itz au ez da efi-itza toki askotan: *bizardun* eta *biza-ŕaundi* aurki entzuten dire maizago. *Bizartsu* esaten duten efíetan ere *árizu*, *loizu*, ari dire ez afisu, loisu. Z-rekin bear dula agerian dago. *Zoŕizu*, *zarpazu*, *mukizu* *buztintzu* (goizuet) makarizu. Eta efieu izenak eta toki-izenak. Aruatzu, Arbizu, Saraitzu, etc. Alare *indartzu* okertu egin da, beste itz frankorekin.

10. *Esne* Amaika ez beste efíetan.

esene 5 efítan (Azpir, Uitz, Urdi, Bakai, Iturm).

ezne 6 » (Espar, Yaufi, Eskar, Bid, Urz, Ust).

11. *Orzegun* 7 » (Yaufi, Lesak, Lizas, Olo, Bidang, Arizk, Narbar).

ortzegun 40 »

ostegun 24 » (Lafaun, Sakan).

12. Garagartzaroaren;—ilaren, eriaroaren 7 garenean. Bat ez beste efi guzietan. Garagaŕilako 7-an... Gartzau-en.

Arbizun ere ageri da—ko baño beste erizkizundian (bi baitire)—ren ageri da. *Gárenean* 6 efítan (Lekar, Oster, Urz, Lizas, Alkoz, Ustaŕ). *Garña gaŕena* ordez Ustaŕotzen.

13. *Elea* erabilta den efíetan *itz* da *ez izkera*. 14 efítan (Aezk Salaz, Efonk, Geien).

Orieak eleak dira (irib).

elezu = charlatán (Lizas, Etxalar).

eleuntzi (Etxalar).

eleputz (Oster).

eleketari (Oster).

eleketan (Elgoñi).

elez-ele = palabra por palabra (Usteŕ).

14 *eskerik aunitz* 2 efítan (Lesak, Ituren).

eskerik anitx 3 » (Usteŕ, Urz, Bid).

- eskerik asko 42 efitan*
eskárik asko 3 » (Arbiz, Osk, Legas).
esker mila, mila, milé . 33 »
mila esker. 3 » (Yaben, Gartzan, Etxalar).
15. *Donostia 44 »*
donosti. 30 »
- Gañerako casu-etañez dire tinko. *Donostia* esan afen Donostiko, Donostira esaten dute batzuk. Laraunen batez ere, Donosti, Donostiko, t-a.
16. *Geiago. 22 efitan*
geiego 1 » (Bera).
geigo 16 »
geio 7 » (An Emenka).
geiyo 2 » (Urdi, Iturm).
geyao 1 » (Eix-Aran).
geyo 7 » (Sakan, Geien).
geago 1 » (Abaúreg).
yago 7 » (Aezk, Efo, Esterib).
diago 2 » (Espar, Eskar).
obro 3 » (Urz, Ustaf, Bidang).
17. *Zaindu. 18 » (Goief, Bortzeñi, Baztan).*
zandu 5 » (Azpir, Ares, Betel, Lezet, Intz).
zeintu 1 » (Iribet).
zaitu, zaítu . . . 29 »
zaítu 1 » (Bera).
begirazten 1 » (Ustaf).
18. *Agindu. Iñon ez b-rekin. Ezí askotan g-rekin; beste batzutan ez b ta ez g-rekin.*
Hitzeman (Luzaid); itzeman (Abaúreg, Oster) itz emon (Efrónk).
19. *Leiza. 1 efitan (Etxal).*
leize 6 » (Goizu, Luzai, Intz, Betel, Leitz, Lekar).
leze 54 »
lize 1 » (Betelu).
gindanobi 1 » (Espar).
indanobi 1 » (Eskar).
indandobi 1 » (Bidang).

20. *Argitara, argitera* etc. *Argitaldu* iñon ez.

Elkin = atera (Bid); *erkin* (Urz, Ust).

21. *Bizitza, (e)* . . . 41 efitan

bizitz . . . 7 » (Narbart, Lekar, Ustaf, Olazt,
Egiñafet, Arbiz, Uitz).

Bizitza bat = una vida ez dirudi oso oitua; *batzuk bizi bat*.

Bizitza = el mueblaje, el ajuar de casa (Bera, Donamari, Áraioz).

Eriotza bat (eriotze). 49 efitan

eriotz bat . . . 10 » (Lekar, Narbar, Etxaran,
Bakai, Arbiz, Ares,
Madoz, Uitz, Leitz,
Beruei).

gauza (e) bat . . . 42 »

gauz bat, bet . . . 25 »

Oar. *Gauz bat, bet* (Donamari, Arizk) baño *lau gauza*.

Uitzin era gazteak nastekatzen ditue: Bi anai (Ansorena) mutil
gazteri galdegin nien nola esaten zen: una cosa, dos cosas, tres
cosas, cuatro cosas, eta batak: *gauz bet*, *bi gauze*, *iru gauze*,
lau gauze; besteak *gauze* (b) at, *bi gauz*, *iru gauz*, *lau gauz*.
Baño zafak *gauz* esaten dute.

Neskatxa (e) bat . . . 25 efietan

neskatila bat . . . 2 » (Yauri, Afaiz).

neskatx, neskais . . . 25 »

22. *Erénteria* 34 »

erénteri 11 »

23. *Bilbao* Bat ez beste efietan.

Bilbo Gartzau-en.

24. A) *Ilbeltza* Efírik geienetan.

izotzila . . . 18 efitan (Aezk, Salaz, ta an emen).

itzolile . . . 1 » (Beorburu).

urtaírl . . . 6 » (Etxalar, Bera, Luzaid, Bid,
Ust, Urz).

B) Otsail, otxail, t. a.

Z) Martxo, martxo, t. a.

D) Apiril, apiribil (Sakan) t. a.

E) *Maiatz, maietz*. Uitzin esaten dute: baietz; biar dela
maietz; etzi Pazkoat; ezkontzen dela gure atsoa.

F) *Garagartzaro* . . . 41 efitan

garagaírl 21 »

erearo 1 » (Arizk).

- eriaro* 1 efitan (Lekar).
eriro 2 » (Bera, Etxalar).
ereiero 1 » (Lesak).
ekhaina 1 » (Luzaid).
G) *Uzta* 30 » (Bakar batzuk uztaa ta uztaila).
uzte 4 » (Ultzam).
garil 33 » (Aezk, Salar, Efonk, Sakan).
H) *Agorila* (Luzaid, Bidang, Urz, Ust).
abuztu, agoztu etc. gañerako efietan.
I) *Urí* 48 efitan
buruile 17 » (Goierí, Bortzeí, Bazt).
agorá 1 » (Madoz).
setemera 3 » (Efonk).
L) *Lastail*. 35 »
urí 15 » *Uríeta Ustafotz-en.* (buruile dutenetan).
azaro 8 » (Aezk, Salaz).
agorá 6 » (Lekun, Azpir, Leze, Betelu, Intz, Ares).
gaztañezitu 1 » (Ezkur)
M) *Azaro* 60 »
abendu 9 » (Aezk, Salar, Efonk)
N) *Neguil* 1 » (Orozbet).
abendu Efírik geienetan.
bigařen abendu. (Azaroari abendu esaten dioten efietan).
25. *Gosari* 56 efitan
askari 3 » (Luzaid, Urz, Ust).
aladamortzu, alamortzu 5 » (Aezk).
26. *Gosaldu* 68 »
askaldu 1 » (Luzaid)
askaria egin 2 » (Urz, Ustaf).
aladamortzatu . . . Aldamortzu duten efietan.
29. *Grabiel* geienak.
30. *Ardandegi* Bakan samar entzuten da, baño geienetan *ardandegi*. *Ardangela* maizago.
ardantegi 5 efitan (Goizu, Yaben, Olazti, Afaiz, Elgori).
mindegi (d) 20 » (Aezk, Ultz, Bazt, Geien).

- mintegi, muntegi, muntegi* gañerako geienak.
mindaitz Añaiotz-en.
31. *Isiltasun* . . . Eñi guzietan *t*-rekin.
isiltarsun . . . 2 eñitan (Espar, Yaufi).
32. *Biguntasun zuzentasun*. Bi ez beste eñi guzietan.
bigundasun . . . 1 eñitan (Añaiiz).
zuzendasun . . . 1 » (Lanz).
33. Iñon ez.
34. A) *Bide zabala* . . . Geintsunak.
Ierabidia . . . 1 eñitan (Elgoñi).
B) *Bidezoña* . . . 8 » (Beorburu, Orozbet, Yaufi, Yaben, Intz, Betel, Lanz, Gartzain).

Z) O.

35. *Ilkor* . . . Esaten duten eñietan *k*-rekin, ez *g*-rekin. *Igarankor* ez da ageri, baño n-ufena *k*, *iraunkor* = duradero.
36. *Napañoatik* . . . 3 eñitan (Ezkuf, Uitz, Beorbur).
nafañoatik . . . 12 » (An, Emenka).
nafarúatik . . . 2 » (Lesak, Etx-aran).
napańotik . . . 17 » (Geien, Lafauñ).
nafańotik . . . 18 »
napańutik . . . 2 » (Urdi, Lakun),
nafańutik . . . 4 » (Bakai, Arbiz, Liz-beng, Olazt).
napańetik . . . 1 » (Yaben).
nafańatik . . . 1 » (Etxalar, baita, Nafańotik, Nafańutik).

Oar. — *Tik bezalatsu*, —ra ere: *Napañoatik* Napañoara, t. a. Egoki ziteken lankideek galdegin balute *Naparoa'z Nafaroa* esan afen *Nafańotik* ageri baita (Esparitz). Efonkarin Nabafa, Nabańatik, Nabańara.

37. *Nafartar bat* . . . 24 eñitan
napartar 13 »
nafar 11 »
napar 15 »
nafańo 3 » (Eskar, Bid, Ust).
Ñapańa = el aguardiente (Elgoñi).
38. Asteko egunen izenak.
Astelen, astearte asteazken (astizken etc.) Eñi guzietan.
Jueves = *Oitzegun* . . . 40 eñitan

orzegun . . . 2 eritan (Yauri, Lesak).

ostegun . . . 27 » (Lafaun, Sakan).

Viernes = Ortziral, ortziil, ortzil. . . 10 eritan (Bortzefi, Baztan).

ortzilare, ortzilere, ortzilare etc. 35 »

ostirale ostirel etc. 25 » (Lafaun, Sakan, Geien).

Sábado = Larunbat, lagunbat (Iraiz). Laronbat etc. Laut ez beste efitan.

zapatu 1 eritan (Nabaz).

neskanegun . . . 3 » (Bid, Ust, Urz).

Domingo = Igande, igante (Efonk). Bost ez beste efi guzietan.

domeka 5 eritan (Alsas, Iturm, Bakai, Urdi, Olazti).

39. *Napafoan*. . . . O.

40. *To mutikoari* . . . Efirik geienetan.

No nexkañoari . . . 4 eritan (Iribef, Eskarotz, Bidang, Ainzio).

41. Iñon ez. *Goien Bera-n*. Elizekoai *primitziek*.

42. *Diosal* egin geienak.

yeusala oskoz.

yosala (Yaben).

solastu (Eixalaf).

abur egin (Orozbet).

agur egin. . . . 5 eritan (Abauñeg, Lanz, Beorburu, Narbarte).

43. *Despeditu* geienak.

agur egin = hacer reverencia . . . 9 eritan (aurki geiago-tan ere).

agur egin = dar la bienvenida (ituren).

44. *Gogoratu* geienak (recordar).

oraitu. . . . (Iribef).

oraitu. . . . (Abauñg).

eguartan egon (ustatofotz) (¿estar de guarda?)

45. *Gurutze* . . . Bederatzi ez beste efi guzietan.

kurutze . . . 5 eritan (Espar, Yaufi, Luzai, Bakai, Alsas).

krutze . . . 1 » (Eskar).

krutxe . . . 3 » (Urz, Ust, Bid).

46.

<i>Krina</i>	1	efitan (Iribefi).
<i>grina</i> (opinión)	2	» (Abauég, Orozbet).
<i>grinea</i>	1	» (Yaben).
<i>grine</i>	1	» (Lekar).
<i>griña</i> (e)	26	»
<i>inkliña</i> = mala intención (Zubiet).		
<i>ero</i>	1	efitan (Oster).
<i>ixe</i>	1	» (Beruet).
Girna, girña		lñon ez.

47. (Erderaz bezala).

48. Gure *alde* Bi ez beste efietan.
» *alte* 2 efitan (Ust, Bid).

49. *Jauna*, (e) ez *Jaunoi*. Eri guzietan. Xauna, Jina etc.

Oar. *Ken ordez eken* (Iribefi, Abauép); *gen* (Espar, Yaufi, Azpir, Efonk) *leku* (Oster).

50. <i>Edatera</i>		Efi guzietan, eraíra, (Efonk).
51. <i>Zaitea</i>	1	efitan (Goizu).
<i>zaitia</i>	1	» (Etxalar).
<i>zaite</i>	18	»
<i>zaiñe</i>	16	»
<i>zaitez</i>	3	» (Beteleu, Olazti, Urdi).
<i>zaiñez</i>	4	» (Zubiet, Intz, Etx-aran Lizbeng).
<i>zaiñea</i>	3	» (Lesak, Ezkuér, Aran).
<i>zañea</i>	2	» (Leitz, Azpir).
<i>zañee</i>	1	» (Uitz).
<i>zañe</i>	1	» (Beramendi).
<i>zañez</i>	1	» (Ares).
<i>zate</i>	1	» (Beorbur).
<i>zaite</i>	2	» (Abufep, Luzaid).
<i>ziñe</i>	1	» (Bera).
<i>xte</i>	1	» (Yaufi).
<i>eguazte</i>	1	» (Uitz).
<i>guazte</i>	1	» (Urz).
52. <i>Aprika</i>	3	» (Gartzau, Madoz, Nabaz).
<i>afrika</i>		Gañerako efietan).
53. <i>Eseri</i>	16	»
<i>exeri</i>	4	» (Goizu, Madoz, Olo, Narbaz).
<i>exari</i>	2	» (Orozbet, Olo).

<i>xari</i>	16	eritan
<i>xaser</i>	1	» (Ustar).
<i>yari</i>	25	» (Bortzeñi, Ultzam, Bazt, geien).
<i>jaři</i>	13	» (Sakan, geien).
54.	<i>Esta deus</i>	Zazpi ez beste efitean.
	<i>ezta ezer</i>	7 efietan (Sakan).
Oar.	<i>Daus</i> (Abaure, Bietan, Añiet, Nabaz, Legas); <i>daus</i> (Amai, Donamari, Iraiz, Irati, Ituren, Áraioz) <i>deus</i> (Zubiet); <i>yeus</i> (Elgoñi); <i>eus</i> (Azpar).		
55.	<i>Lege</i>	Efi guzietan.
56.	<i>Aita jauna</i>	3 eritan (Olazt, Alsas, Urdi).
	<i>aita juna</i>	2 » (Alsas, Iturm).
	<i>aitona</i>	1 » (Etxal),
	<i>aiñona</i>	4 » (Lesak, Ber, Goizu, Lekun)
	<i>añona</i>	1 » (Aran).
	<i>aiñuna</i>	8 » (Sakan, geien).
	<i>atuna, (e)</i>	24 » (Lafaun, geien).
	<i>atxuna, (e)</i>	2 » (Gartz, Nabaz).
	<i>aitabitxi</i>	1 » (Beorbur).
	<i>aitautxi</i>	2 » (Abaufeg, Legas).
	<i>atautxi</i>	1 » (Donamari).
	<i>aitautxu</i>	1 » (Yabar).
	<i>aitatxi</i>	1 » (Amai).
	<i>aitetxi</i>	2 » (Áraioz, Arizk).
	<i>aiteutxi</i>	1 » (Oster).
	<i>aitutxi</i>	2 » (Lanz, Irati).
	<i>aitaño</i>	2 » (Espar, Yauñi).
	<i>aitaxo</i>	1 » (Luzaid).
	<i>aitsoa</i>	1 » (Eskarotz).
	<i>apitxi</i>	5 » (Iribéñ, Abaufep, Orozbet, Añiet, Ainzi).
	<i>aputxi</i>	1 » (Irati).
57.	<i>Yaiki</i>	13 »
	<i>jaiki</i>	2 » (Arano, Yaben).
	<i>yaki</i>	1 » (Narbaz).
	<i>yeiki</i>	8 » (Goieñ, Bazt).
	<i>yeki</i>	7 » (Goieñi).
	<i>yiki</i>	2 » (Etxal Bera).
	<i>jeiki</i>	1 » (Lekunb).

<i>je ki</i>	.	.	.	10	efitan (Laŕun, Basabu, Araitz).
<i>jagi</i>	.	.	.	10	» (Sakan).
<i>jegi</i>	.	.	.	1	» (Aŕuatz).
<i>xaigi</i>	.	.	.	1	» (Urz).
<i>xagi</i>	.	.	.	2	» (Bid, Ust),
<i>xaiki</i>	.	.	.	10	(Aezk, Salaz).
<i>xeiki</i>	.	.	.	2	» (Espir, Aŕiet).
<i>xeki</i>	.	.	.	1	» (Yabaz).
<i>xegi</i>	.	.	.	2	» (Iribéŕ, Irañ).
58.	<i>Gizonik aski</i>	.	.	32	efitan
	<i>gizonak aski</i>	.	.	1	» (Amaiur).
	<i>gizon aski</i>	.	.	2	» (Olo, Narbart).
	<i>aski gizon</i>	.	.	2	» (Ustaŕ, Urzaink).
	<i>gizon ausarki</i>	.	.	1	» (Bera).
	<i>gizona pranko, franko</i>	.	.	18	» (Goier, Laŕaun, Araitz, Sakan).
	<i>gizon franko</i>	.	.	3	» (Alkoz, Iraiz, Nabaz).
	<i>franko gizon</i>	.	.	4	» (Aŕaiotz, Ituren, Besak, Donamari).
	<i>naiko gizon</i>	.	.	15	» (Sakan, geien).
	<i>naiko gizona</i>	.	.	1	» (Yabar).
	<i>naikoa gizon</i>	.	.	2	» (Aŕuatz, Arizk).
	<i>gizona naikoa</i>	.	.	12	» (Goier, Bantz, Sakan).
	<i>gizonak naikoa</i>	.	.	1	» (Beorbur).
	<i>gizon naikoa</i>	.	.	2	» (Olazti, Legas).
	<i>gizona naiko</i>	.	.	1	» (Olo).
59.	<i>Bereter</i>	.	.	1	» (Bidang).
	<i>atxezatu</i>	.	.	1	» (Ustaŕ).
	<i>atizatu (atizatra)</i>	.	.	1	» (Urzaink).
	<i>erdein</i>	.	.	1	» (Bidangoz) = caber. Eden záfak).
	Caber = <i>itxiki</i> (Ustar); funeral = <i>ilari</i> (Aŕiet, Iribéŕ, ilario (Iribéŕ); <i>ostea</i> = el sepelio (Eskar).				
60.	<i>Ilun, (batzuk ilun)</i>	.	.	40	efitan
	<i>ulun</i>	.	.	3	» (Urz, Ust, Bid).
	<i>betitun (lun)</i>	.	.	14	» (Aezk, Araitz).
	<i>betulun</i>	.	.	1	» (Lekunb).
	<i>begilun</i>	.	.	1	» (Azpaf).
	<i>begi-ilun (1)</i>	.	.	8	» (Iribéŕ, Olo, Iragi, Oster, Iraiz, Lizas, Donamari, Amaiur).

betikulun 2 efítan (Urz, Ustí).

bekañilun 1 » (Uitz).

bekainbeltza 1 » (Altsas).

kopetilun 2 » (Leitz, Uitz).

(1) Abé de Leun, diruek galdu eta begiek ilun (Osteritz).

biotzilun 2 efítan (Yaben, Iribef).

biotzil 2 » (Madoz, Yabar).

báren-il 1 » (Etxal).

motz 2 » (Yabar, Ainzira).

beltzuri 6 » (Eskar, Yaufi, Etxelar, Ainzio, Azpaf, Bidang).

goibel (eguraldiaz esaten da 14 efítan

triste Efi guzietan esaten da itz txaneliñ an.

61. *Otoitz egin* 27 efítan (Efegutu agitz).

otoi egin 4 » (Yaufi, Ustañ, Urz, Arbizu).

otoitu 1 » (Abauñep).

ařen egin 1 » (Etxalar).

Otoitze (Oscoz, Uitzin zárák) «Gutaz egizu otoitz ona» esaten da santa Garaziren kopletan.

62. A) *Atxanini* 4 efítan (Iribef, Orozbet, Espari Ainzio) Azkue *atxamini atximini*.

atxiyamatxi 1 » (Arbizu) (Atxitamatxa, Azkue).

atxitamutxita 2 » (Bakai, Iturm).

atxitemutxitari 1 » (Urdi: gabez argi-inguru-an dabilenari).

atximitxi 1 » (Aruatz).

matxita 1 » (Etx-Aran).

tximutx 3 » (Leitz, Ares, Betelu).

axandalo 1 » (Lekunb).

poxpolin 2 » (Azpir, Bezel).

pinpilinpausa 1 » (Lesak).

txintxilinpal 1 » (Olazti).

txipirilón 1 » (Ezkur).

jainko-oło 18 »

jainkoaren mandalari 9 efítan

mariposa Efi askotan.

B). *Armiamma* 20 efítan

armearma 1 » (Intza).

ermiarma 3 »

<i>irmiarma</i>	7	efitan
<i>irmiarmau</i>	2	» (Irañet, Áruatz).
<i>irmiarmario</i>	1	» (U-arak).
<i>armimau</i>	7	» (Sakan, Ultz).
<i>armimeru</i>	1	» (Iragi).
<i>armimosario</i>	1	» (Iraiz).
<i>almemoru</i>	1	» (Liz-beng).
<i>almimora</i>	1	» (Arbizu).
<i>almimoro</i>	1	» (Etx-Aran).
<i>armamilo</i>	7	»
<i>armanbilo</i>	1	» (Afiet).
<i>armigo</i>	1	» (Bera).
<i>argimau</i>	1	» (Nabaz).
<i>añamorma</i>	2	» (Espar, Yaufi).
<i>amoma</i>	1	» (Lakuntz).
<i>amaŕatza</i>	1	» (Olazti).
<i>añaberba</i>	1	» (Urzaink).
<i>mirímaŕau</i>	1	» (Urdi).
<i>mirímaŕau</i>	2	» (Bakai, Iturm).
<i>lipu</i>	1	» (Luzaid).
Z). <i>Xaguxar</i>	17	» (Laŕaun).
<i>inara</i>	1	» (Liz-beng).
<i>inere</i>	1	» (Iragi).
<i>iñede</i>	1	» (Nabaz).
<i>inara-sagu</i>	3	» (Liz-ben, Arbizu, Etx-aran).
<i>gau-enara</i> (gabiňare t. a.)	29	efitan (Goiefi, Sakan).
<i>apoñańari</i>	1	» (Yaufi).
<i>apańari</i>	1	» (Espar).
<i>gautxori</i>	2	» (Orozbet, Lanz).
<i>txordingo</i>	1	» (Lumbier).
<i>sorgintxori</i>	1	» (Abauŕep).
<i>ipurdimotx</i>	1	» (Lesak).
<i>ezkabaxoŕo</i>	1	» (Legas).
<i>argixorgin</i>	1	» (Elgori).
<i>xorbeltza</i>	2	» (Nabaz, Donamari).
<i>txirina</i>	1	» (Aŕaitz).
D). <i>Legena</i> .	5	efitan (Ezkur, Aŕaiz, Alkoz, Lanz, Iraiz),
<i>negela</i>	6	» (Lesak, Bera, Donam, Zubi, Lizas, lluren).

<i>negala</i>	7	efitan (Iribéf, Amai, Lanz, Gartzain, Afaiotz, Arizk, Lekar).
<i>igal, ial</i>	5	» (Yaufi, Eskar, Espar, Uitz, Lekunb).
<i>igela, yela</i>	22	» (Lañaun, geien).
<i>iyela</i>	1	» (U-arak).
<i>ikel</i>	4	» (Iribéf, Abaufeg, Orozbet, Azpar).
<i>urigel</i>	3	» (Oster, Iragi, Ainzio).
<i>urikel</i>	1	» (Afriet).
<i>xetel</i>	2	» (Etxalar, Elgoñi).
<i>txetel</i>	1	» (Narbaz).
<i>xatel</i>	1	» (Legas).
<i>urapo</i>	1	» (Nabaz).
<i>zapoziyal</i> . . .	1	» (Eix-Aran).
<i>zapifel</i>	1	» (Liz-beng).
<i>zapiyelberde</i> . .	1	» (Arbizu).
<i>zapielixter</i> . .	1	» (Lakuntz).
<i>kunkunberde</i> . .	1	» (Iturmendi).
<i>ubelaiza</i>	1	» (Bakai).
<i>ubaraxi</i>	1	» (Alsas).
<i>ubariza</i>	1	» (Olazti).
<i>ubaxa</i>	1	» (Urdi).
E). <i>Apo</i>	21	»
<i>apotzar</i>	3	» (Luzai, Oster, Bid).
<i>apatará</i>	1	» (Abaufeg).
<i>árapo</i>	1	» (Yaben).
<i>lańapo</i>	2	» (Orozbet, Lizas).
<i>zarapo</i>	2	» (Beorbur, Nabaz).
<i>aputza</i>	1	» (Ustaf).
<i>zapielkunkun</i> . .	1	» (Lakuntz).
<i>motxońo</i>	2	» (Azpir, Egiañet).
<i>lauko</i>	2	» (Ituren, Legas).
<i>kunkuna, (e)</i> . .	10	» (Geien, Sakan).
<i>zapo</i>		Eñi askotan.
63. <i>Prantzie</i> . . .	3	efitan (Leitz, Uitz, Azpir).
		<i>frantzia, (e)</i> . . Gañerakoetan.
64. <i>Prantzes</i> a . . .	4	efitan (Madoz, Leitz, Uitz, Beruet).
		<i>frantzes</i> a, <i>prantsesa</i> , <i>frantsa</i> . . . Gañerakoetan.
		<i>autxa</i> 2 efitan (Ustaf, Urzain).

65. *Oroitgarí* . . . 1 » (Yaufi).
oroigarí . . . 3 » (Etxalar, Oster, Ainzi).
oroikarí . . . 4 » (Ariet, Beorbur, Lekaro, Elgofi).
oroitzáren . . . 1 » (Abaufep).
oraitzapen . . . 2 » (Bera, Luzaide, *recuerdo*).
oroitzepen . . . 2 » (Afaiz, Alkoz).
oroizepen . . . 1 » (Gartzain).
66. *Lapurdi* . . . 14 »
laburdi . . . 3 » (Afaiz, Alkoz, Narbart).
«Ezta beti Lapurdin festa». (Beramendi). Biba basanabar,
kuku Lapurdi (Osteritz). Lapurdire baauke emendik (Beorburu).
67. *Lapurtarák* . . . 9 éfitan (Lekar, Arizk, Afaiotz,
Ainzi, Oster, Luzai,
Amai, Orozbet, Aba-
ufep).
lapurditarák (1) . . . 4 » (Elgofi, Beorburu, Le-
kunbefi, Yaben).
laburditarák . . . 4 » (Nabaz, Alkoz, Afaiz.
Yaufi).

(1) *Lapurditarák* = raza de ladrones (Yaben).

Joanes Eixebeñik barka bekit, baño Lapurdi aurki da *lapur-erí*,
Erderaz ere esaten da: «gascón, ladrón», eta gaskonak gureen
artean dire.

Mendibururen adizkiak eta idaztankera (1)

I

SUMARIO.—1. Euskaltzainen eritzi bat eta Mendibururen *Otoitzgaiak*. 2. 1760 ta 1904 gaeren urtean argitaratuak. 3. Ekoizpen (edizione) befiaren bi geigai. Mendiburu bai ta Mendiburu ez. 4. Aditz berenkoien adizkiak. *Eduki. Egin. Egon Ekarri. Erabilii. Eraman. Erausia. Erion. Eritzi. Eran. Etorri. Etxin. Yakin. Yaiaiki. Yarduki. Ibili. Ikusi. In. Yoan. I-on* (edo esan). *Iraun. Irudi. Itxeki.*

§ 1. Giputz-aditza alik osoroen biltze, egubeñi-aurreko batzar baten, eritzia eskatu nizuten batzarkide maiteoi: ea, onetarako, Irun-Oyartzun-Ondarribi alde oretako adizkiak alkartzea bear beareko lana edo beintzat egokia zeneritzazutén ala ez. Baietz erantzun zenidaten, Bonapartek Goinapartzat zedukan izkelki ori beste Giputz askoren adizkiai gaineratzea egoki izango zela. Orduan, Naparroaldeko uri orietara yuntaea udaberirako naiz udarako utzirik, Mendibururen adizkiak biltzeko asmoa artu nuen. Adiskide on batek, gure lankide Eguzkitzak, Mendibururen *Otoitzgaiak* deritzan lan irukoitza—lenen argitaratua —eskuratu zidan. Orialdez orialde, leioz leio ta itzez itz iru liburuak zeatz ta ardura aundiz irakuíta, bi edo iru batzaretarako gaia dakarkizutet. Nere lantxo onek iru atal izango ditu. Aditz berenkoien adizkiak (flexiones de

(1) Lan au aspaldion amaitua nedukala, Euskaltzaindiak *yakin, yo, yausi...* ta auen antzeko beste edozein itz jaintzat artuz idaztea erabaki zuen: *jakin, jo, jausi*. Lendik eginak ziran lanak lengo idazkeraz erakustea ontzat artu zuen ordea.

verbos independientes) erakutsiko ditut lenengoan, bigarén atalean aditz laguntzañenak, irugañean Mendibururen ezgauzatxo batzuk.

§ 2. Lan au azia nedukala (1), eskuetan nerabilen liburua (1760-garen urtekoa) Tolosako Lopezenean oraintsu argitaratuarekin aldekatu (konparatu) nai izan nuen, berdin-berdinak baziran, ekoizpen (edizione) berri au, esku geiagotan baita, aintzat artzeko. Zabal-duta bat-batera zaíaren aurén-aúrènean itz auek irakurri nituen: *Jesusen.compañaco A. Sebastian Mendiburuc eguiñac.* Ekoizpen berrian *Jesusen konpañiko A. Sebastian Mendiburu eguiñak.* Eta bata ta bestea zabalduz zaíak *laster zion* tokian berriak *laister zedu-kala* ikusirik, au itxi ta utzi nuen, zaíra bakařik irakurri ta aipatzeko asmoz. Gero bata ba bestea bein ta beriz irakurita, gure egunotako elazketa (impresión) au ederki egina dela ikusi dut.

§ 3. Azkenaldean bi geigarítxo dakarzki oso arinki eratuak. Béron egilea ilá dela uste dut. Onela dio lenengo geigaríak: *Verbos que usa mucho en la obra el P. Mendiburu, y cuya conjugación conviene tener a la vista para la inteligencia de lo que en ella se va leyendo.* Zortzi aditz aipatzen dira geigarí onetan: *egoki* (2), *egin*, *ekusi*, *entzun*, *izan* ser, *izan* tener (onela dio berak), *jardun* continuar ta *jañaitu*.

Egin-i dagozkion irurogei adizki bildu ditut nik. Geigarí onetan beriz eun ta ogeita amalau adizki age-ri dira; eta jañáitu gaitezen, gizonak!! 134 auen artean *lau* soil-soilik, *lau* dira Mendibururenak: *egidazu*, *egiguzu*, *egiozu* ta *egizkitzu*. Beste eun ta ogei ta

(1) Nik ere Mendibururen antzera *d* ta guzti erabiliko ditut *eduki-ren* adizkiak.

(2) Aditz au *egon* da.

amañak buruz sortuak dira; Otoizgaietan irakuñirik batxo ere ez.

Ekusi edo ikusi-ren adizkitzat Geigarien dakust, dakus, dakusgu, dakusu ta beste 83 irakur ditezke. Mendiburuk bere lan irukoitz onetan bederatzi adizki baizik eztitu. Geigariko 87 orietatik bi dira, bitxo, Mendibururenak: dakuste ta zekusan. Len aipatu ditudan lau oriek onela dakarzki liburu eder au egin zuenak: dakusat, dakusa, dakusagu ta dakusazu.

Entzun-en adizkitzat, Mendibururen otoizgaietati-koak dirala esanez, amairu dakarzki geigariñileak eta gainera bi aldiz dio etcetera etcetera: Dantzut, dantzuk... eta abar. Gizonak jīgarí ezetz zenbat diran Mendibururenak! ¿Zortzi bat ezote? Bakar bat ere ez. Lardizabalen Testamento deritzan liburu artan dantzugula (220-23) ta dantzutela (219-33) irakuñi ditut. Cardaberaz-ek ere bein edo bestetxotan bat edo bat badakar. Mendiburuk, liburu onetan beintzat — esan dudana — bat ere eztigu eman. ¿Zertarako jañaitu buruz egindako, bere moduko geigari au aztertzen?

§ 4. Ogeita lau aditz berenkoiren adizkiak darruskigu Oyartzungo euskalariak: *eduki, egin, egon, ekañi, erabili, eraman, erausia, erion, erjizi parecer ta eretzi llamarse, eran, etorri, etzin, yakin, yaraiaki, yar-duki, ibili, ikusi, in, yoan, i-on edo esan, iraun, irudi ta itxeki.*

EDUKI

Laurogei ta amar urte geroago Asteasuko Aguirrek egingo zuena, *d* ta guzti darabilzki Mendiburuk aditz onen adizkiak: *naduka II 88-45, nadukazu I. 46-1, nadukatenak I. 45-32, dadukadala I. 257-20, daduka I. 19-9...* eta abar. Beñogeit ta bi dira adizki auek, batzuk askotan dakarzki. Bakar bat dakar *d*

gabe: *amorez urtuak dauzkatzuna* I. 173-26. ¿Ezoteda berau Elaztegiko (Imprentako) utsen bat?—Adizki batzuetan ezmezean bezala dakusku bere idaztortza. *Objeto plural*-dun adizkiak dira ezmezeko auek. Askotasun (pluralidad) au adierazteko z bat sartzen du geienetan muñaren (nucleoaren) erdian: *gaduzka* I. 53-4, *zaduzkala* I. 53-11, *daduzkat* I. 28-36, *neduzkan* I. 36-24, *zeduzkaten* II. 305-20. Beste batzuetan *ka-ren* aurétki z auxe eta atzetik beste *plural-ezauga* bat yartzen ditu: *daduzkatzitzu* III. 45-23, *daduzkatzielia* II. 336-23 *zeduzkatzielia* II. 139-9.

EGIN

Indicativoko adizkirik ez oraingorik ez ordukorik bakar bat ere eztut irakuri. Len aipaturiko geigariak dakarzkien *agit*, *dagik*, *dagin*, *dagizu* eta beste guziak ametsetakoak dira. Mendibururenak *imperativo*, *subjuntivo*, *potencial* ta *hipotético* deritzaie-nak dira guziak; imperativokoak guti, zazpi-zortzi bat: *baña dagidan zure gogara* (1) pero hágalo yo según vuestro beneplácito I. 28-30, *emendik aitzinā badere dagigun* hágamoslo siquiera de aquí en adelante I. 155-30; *lagun egiek* ayúdales; II. 45-17; *egidazu niri ere házmelo* también a mí I. 39-11, *egiozu ordez al egiiña* hacedle en cambio lo posible I. 208-9, *argi egiguzu* alumbradnos I. 273-37, *ken egizkitzu...* *naikunde loi makur beroak* quitad... los deseos impuros, viciosos, ardientes. II. 221-14, *egizkitzu...* *al dituzun guziak* haced todo lo que podáis III. 397-25, *egizue...* *Eliza edificad el templo* I. 158-32. Subjuntivo-koak geixeago erabili zituen: *dagiel a hágalo él* I. 238-36, *erazago dagizun* para que más fácilmente lo ha-

(1) *Gogora*-ren ordez beti dio Mendiburuk *gogara*.

gáis I. 3-25, *au negien* para que yo hiciera esto I. 105-19... ta beste amar bat. Ugarienak al izatekoak (*potenciales*) dira: *zer dagiket* III 243-26, *ezin dagike* I. 81-3 eta III 184-21, *badagikegu* I. 70-29, *badagikezu* I. 1-12 ta III 341-30, *ilerazi zagizket* puedo hacer que os maten II. 379-29... eta beste ogei-inguru. Adizki auen arteko artzaileduenetan (en las de recipiente) ere ezmez (indecisión) bat edo beste izan zituen Mendi-buruk. Batzuetan *ezin dagioke* dio III 77-8, II 150-3, beste batzuetan *ezin begira dagikeon* III. 302-28.

EGON

Beste idazle guziak bezala, eñiaren *não* ta *dao* alde bat utziz, go oso-osorik erabili oi du beti *Otoitzgai-gileak*: *zeren begira nago* I. 128-11, *aize-gaiñean dabilen miruak ezagutzen du dagokan denbora* I. 40-35, *onara etorri-naia zegoen* I. 279-27, *ago ixilik* III. 206-35. Bada ordea zerbait, bere adizki batzuetan, ez eñik esan ez idazlek erakutsi eztuen zertxobait: z. Ona adibide bat edo beste. *Zertan zaudezte, zeruak, oren idorak* I. 154-26. Bein ere eztu idazten *zaudete*, Berdin egiten du *izan* aditzaren onen antze-ko idazkiaz ere. *Zuek zerekiko gizon andi yakin-tsuaak zarazte* I. 231-20, *Auñak, noizartean izain zarazte aur txar eroak?* I. 39-25. Zori *egon-en* beste adizki batzuetan *zaudezte* oñetan bezain aldakaitz etzaigu agertzen. Batean dio *bagaudeke alabaiña gu*. II. 207-16, bestean *gu ezin gaudezke gisa orente* III. 248-24; aldiz *doidoia zaudekeen eran*. III-13-18, aldiz *bazaudezke* zerbait *geixeago zere gogozko otoi zearen* I. 6-15; nonbait dio *bekatu-artelean nola leudeke bekatariak* I. 43-5 eta beste nonbait *non leudezke gaur munduko gienak?* I. 146-36.

EKARI

Ogeita bost dira bildu al izan ditudan adizkiak. Eriak orain esaten eztuenik bakar bat: *zu maitzeak lekarken eriotza I. 72-9*. Emen ere askotasuna adierazteko len erakutsitako ezmeza nabaritzen da: batean z darabil *pluralidad objetiva* oren ezaugaritzat, bestean *zki ta tzi* ere bai. Erderazko «los traen» iru gisatara darabil: *oriek dakazten zoíak I. 58-7*, gure *Lege garbi zuzenak dakazkien gauzak II. 232-18*, *aixola-gabeak dakartzien malurak eta kalteak I. 45-3*. ¿Maluŕ au Axulaŕen gerotikoa otezuen oyarizuaŕak? «Vos los traíais» ere beste iru gisatara: *zuk... zenekazkien asmo galduer de los malos proyectos que traíais II. 316-28*; *iluréko gauzetara makurtuak zeneramatziela edo zenekartziela III. 234-1*; *eskutartean zenekartzen gauzak II. 42-12*. «Os traen» adierazteko batean dakar *zakartzie*, bestean *zakazte*: *zere ontasun andiak zakartziela III. 239-12*, onara *zakazten egitekoak II. 287-8*.

ERABILI

Emezortzi baizik eztira aditz onen adizkiak, nik bilduak beintzat. Askotasuna erakusteko Mendiburuk batean *tza* erabiltzen du, bestean *tzi ta* noizbait z utsutsik: *inguruau darabiltza gau ta egun guziak I. 80-12*, *birtutez birtute garabiltzala III. 116-10*; *nik nere bañen onetan nerabiltzan itzak I. 255-11*, *eguraldi gaistoak gaizki zarabiltza I. 217-9*. Aize berean *darabiltzi* bere *odeiak I. 81-1*. ¿*zerk zarabiltzi zabiltzan eran, zere lan onetan?* I. 175-7; *oñak nekez zerabiltziela II. 375-12*. *Or zarabilzte*

karkaiska, listuka, okabilka II. 305-13. Eriak, tokirik geienetan; askotasun au adierazteko eztu erabiltzen *ez tza, ez tzi ez z soil ori ere*. *Zki* dauka ofetarako eriak aintzat artua, Len aipaturiko adizki Mendiburu-ren oriek onela entzun ditut Giputz-uri geien geienetan; *darabilzki, garabilzkiela, nerabilzkien itzak, zarabilzki, zarabilzkiela ta zarabilzkite*. Otoizgai auen leño -artean erakusteko egokia den adizki eder bat ikusi dut, aditz oni ditxekona, Lařamendiren itz beri bat aintzat artuz: *nere antuste galgariak* dio Mendiburuk I. 242-6 *zoratuaren eran neranbilela* trayéndome (moviéndome) como a loco mis perjudiciales jactancias. Aztertu dezagun *neranbilela* au. **Morfología Vasca**-ren 545 ta 546-garéen orialdētan adizki onen erdiko *n* zer den erakutsi zan. Euskalari guzien artean Mendiburu izan da *n* au ederkienik eraibili duena: *nendukaten* me tenian I. 36-26, *zenduzkadan* os tenia I. 36-35, *nengoenean* cuando yo estaba I. 67-20, *nentorke* yo vendría II. 59-1... eta abar. Arteko *n* ori aditz-muñari (nucleoari) auñetik ezári bear zaio. *Erabili*-ren muñ *rabil* ezta ordea egokia *n* auñetik duela esateko. ¿Nork itz au *nennrabil* ongi ebaki? Oregatik eriak *n* muñ bikoitz oren erdian ezári du ta Mendiburuk ere, erian entzunik naski, *nennrabil*-ren ordez *neranbilela* aintzat artu zuen. Áixe berau egin zuen Mogelek ere. Ona emen **Morfología Vasca**-n onen gaiñerako esanikoa: «Moguel en su *Peru Abarca* 211-7 recoge una curiosa flexión, que parece popular, en que esta subcaracterística pasa por una curiosa metátesis al medio del núcleo. *Ezpaneranbil* *Erepublikeak* zeregin ta arazo ardura andikoetan. Moguelen *ezpaneranbil* ta Mendibururen *neranbilela* oin berdiñeko adizkiak dira.

ERAMAN

Ogeita lau adizki dira bildu ditudanak, gutxien entzunak subjuntivo-ko auek: *guziak nai lukee leramen lenbait len Elizara* todos quisieran que le llevasen (al cadáver) cuanto antes a la Iglesia I. 20-17, *zur gorputzak orduan leramaken neke arigañira* a la asombrosa fatiga que sufriría entonces vuestro cuerpo I. 69-21. Bizkaieraz *eroan-ek* bezala, dakutsutenez, Mendibururen *eraman-ek* ere noiztanka erderazko «sufrir» adierazten du. *Berak naramala au obeki ezagutzen den tokira* que me lleve él adonde mejor se conoce esto I. 79-14. *nola guk onen indar gutirekin ta lagunik bage generamake* (erderaz llevaríamos) *geren legeko uztari astuna ta karga guzia?* I. 98-4; *guziak daramatziela ezer ezpalerama bezain isilik* III. 27-35.

Askotasuna adierazteko lendik dazaguzkigun z *ta tzi-ren gainera zki* erabiltzen du gure maisu onek, *Eskutik garamatzien zerurako geren bidean* I. 139-8, *aitziña* (1) *daramatzi Jesusek* II. 330-12, *gure legeko nekeak daramaztenen doatasunak* II. 111-4; *bide gaistoz zaramazte zu beñiz* II. 201-18; *ongi irabaziak neduzkan nik, bai, daramazkidan oraingo nere nekeak* II. 100-33, *eska zayozu alik umilkiena ta begi-gogoak luŕean daramazkitzula* II, 59-18. *Eraman onen adizki polit bat uts txikitxo batez ageri da: gaur bertako nekeak ere eraman oi ditudan baño arintasun geiagorekin ta agitz aisa naramazkiela.* Azken itz onen ordez *naramazkiela*, erañi zuten argitaratzaleak.

(1) Utssez *aitziña* dio.

ERAUSI

Erderazko «hablar» da aditz au. Onen antzeko irudazaguzkit, bi ilotzik paperefan eta bat eriaren ezpainenan bizi diranak: Lizaráagaren *erauntsi* sonar, Lardizabalen *erasan* decir ta Bizkaiko *irautsi* «norbaiti esan» dira aditz auek. Amalau baizik eztira Mendiburuak dakarzkien adizkiak. Beren artean batzuk askotan ageri dira. Batetik guti, bestetik politik eta gainera geienak beste liburutan irakuri gabeak diralako oña or amalaurak:

1. *¿Zer otediot nik edo zer otedarausat?* II 215-4.
2. *¿Zer oteda nik nere aldi onetan darausadan au?* III 272-4.
3. **Darausala nai duena mundu eroak.** I. 238-35.
4. *Gaizki ta ez garbiro darausanarena lo del que habla mal y no puramente.* III 249-19.
5. *¿Baña zer izketa da guk darausaguna?* I. 200-22.
6. *¿Baña zer erakeria zuk orain... darausa-zuna?* I. 271-23.
7. *¿Zer da orain zuek darausazutena?* II. 378-25.
8. *Etzuen niork aditzen guk geniona edo gerau-sana.* I. 17-7.
9. *Lagunak bazerausaten ere...* II. 341-22.
10. *Musika-guziak elkar arturik balerausate ere* (Leizaráagaren *erauntsi* dirudi emen *erausi* onek...) *adituko etzenuke orien erausia.* I. 64-4. Urengo bost adizkietan Bizkaiko *Irautsi*-ren *dirauste* me dicen, *zirausten* me decían-en antz andia artzen du Mendiburu-en *erausi-k*.

11. *Nik ezdet onegan arkitzen zuek darausta-zuten gauzetatik bat ere.* II. 326-10.

12. *Daraustela bada nai dutena.* II. 187-14.

13. *¿Zer da... judatar oriek daraustena?* II. 379-6.

14. *Judatarak zerausten gauzak.* III. 83-2.

14 bis. *Nere gain Judu gogoňak zerausten al-dietan* II. 333-26.

Zerausten auek baditeke zerausaten-en ordezkoak izatea. Asteasuko Aguirrek eta Ubillosek erabili zituzten adizki auetatik bat edo bestetxo. *Euskeraz darauskizunean* cuando habláis en vascuence (*Christau doctrinā* 3-12). *Ezdezazula esan askok darausten bezala* no digáis como muchos lo dicen (*Confesio.* 335-2). *Mingain gaiztoak darauste...* hablan las muchas lenguas *Ibid.* 243-23).

ERION

¿Oroitzen oteda irakurlea **Morfología Vasca**-n erakutsitako «verbos esencialmente receptivos» aie-zaz? Amar ageri dira Liburu aren 557-gaén ofialdean. Amar aietatik irugařena auxe da: *erion* derramar, manar. Manándole sangre *odola* dariola I. 234-15. Manándole (entonces) llanto *negařa* zeriola I. 131-34. Con el sudor sanguíneo que le manaba a gotas *tanta-ka zerion odolezko izerdiarekin* II. 265-33.

Adizki auek edozein euskalkitan entzunak dira. Eztute, beste aditz batzuk bezela, *ki* bear izaten. *Eto-ři-tik* eta *yoan-etik* *natorkio* ta *noakio* sortzen dira, baina *erion-dik* eztira sortzen ez *darikio* ez *zerikion*, *ki* gabe: *dario* ta *zerion*. Bada, ordea, aldakuntzetxo bat gure ta Mendibururen adizki batzuen artean. Guk, artzailetzat *niri guri zuri* darabilzkigunetan, artzaile

orien ezaugari utsak esaten ditugu, Mendiburuk beñiz
e bat aurétiik dutela. Guk *negaña daridala* manándome
llanto, Mendiburuk *negaña dariedala* I. 49-16; guk
negaña darizula, Mendiburuk *negaña dariezula* I. 46-
30; guk *izerdia zerizula* manándoos (entonces) el sudor,
Mendiburuk *izerdia zeriezula bizi ziñanean* II.
119-25.

Beste aditz baten adizkiak erakusten asi-orduko
azter dezagun Mendiburuk dakaen *erion*-en adizkitxo
bat. *Uríkariz ta amorez Amari zeriozkan negar-mal-*
koak I. 207-25. Adizki baten *ki* maizenik artzaile-ezaugari
da ta lagun bat bear izaten du oretarako: *t, k,*
n, o... ta abar: *datorkit, datorkik, datorkin, datorkio,*
datorkigu, -kizu, -kizue edo *-kizute* ta *datorkie*; beti
bera aurétiik. Askotasun - ezaugari gaineratzen zaie-
nean, z onek *ki-ren* auŕe-aldea artzen du: *datozkit,*
datozkik, datozen, datozkio... ta onela beste gu-
ziak. Eta z ta *ki* auek maiz alkartzen diralako-edo,
itsatsita bezelaxe adizki askotan izaten dira, *ki* artzaile-
ezaugaria eztelarik ere bai. Z oren uren *kit, kik,*
kin, kigu, kizu ta *kizue* datozen guztian orixe gerta-
tzen da, gipuzkeraz beintzat: etori *zaizkit, zaizkik,*
zaizkin... beti z aurétiik. Bainan artzailea *o* denean,
z orek bestearkin bezela auréko aldea bear luke, bai-
nan eŕitar batzuen ezpainen eta idazle batzuen (ba-
tez ere Mendibururen) eskueten *o* ori, aurétiik gelditzen
da ta *ki* gaixo eŕukařiak bere burua *ka* itzulita ikus-
ten du. Etori *zaizkit, etori zaizkik, etori zaizkiñ...*
auek bai, beti orela; baina *etori zaizkio-ren* ordez Men-
diburuk *zaizko* edo *zaizka* daki erabiltzen. *Eroak,*
dio berak, *pozik artzen ditu dagozkan gauzak...*
eskeintzen zaizkanean I. 120-10, *baña anitz uríkaldu*
zekiozkan (*zekizkion-en* ordezko adizkia) II. **367-28,**
bere gertaldiak eman diozkaten ondasun andiekin

(adizkitxo au *dizkioen-en* ordezkoa da). I. 192-7. Onelaxe sortutakoa da *Erion* aditzaren adizki au: *urikariz ta amorez amari zeriozkan* (le manaban, *zerizkion-en* ordezkoa) *negar -malkoak* I. 207-25.

Goazen auréra, baina aditz bakoitza azaltxoagoiik aztertuz, ni luzēgitu ta zuek aspeŕegitu ezkaitezen.

ERITZI

Bi zentzun ditu aditz onek: erderazko *parecer* ta *llamarse*. Lenengo zentzunezko adizkiak bederatzi dira Mendiburuk dakazkienak, bigaŕenezkoak iru: *deritzat* me parece I. 117-25, *nik deritzadan bidez* II. 379-31, *deritza* II. 250-5, *deritzagunari* I. 55-20, *deritzazu* I. 116-25, *deritzazue* I. 231-24, *deritzate* II. 299-10, *derizte* I. 263-15, *gaizki neritzan nik* II. 247-3. *Suarez deritzan doktore andiak* el gran doctor que se llama Suárez I. 168-19, *Judas zeritzan oni a este se llamaba Judas* I. 141-4, *Simeon zeritzan gizon bat* un hombre que se llamaba Simeón. I. 286-72.

EŔAN

Onen ordez *infinitivoan* geienean *esan* erabilia-ren, Lapurdi ta Napaŕoa-aldeko *eŕan* bi aldiz artu zuen adizki auek ateratzeko: *Ea eŕaguk, Kristo, eŕaguk nork ematen dien oraingo nere esku-ukaldia*. II. 505-2; *eŕazu ezperen* II. 341-6. Emendik artu bidezuen Lardizabalek bere *zerbait deŕagun Job-en... gainean Test.* 278-31.

ETOŔI

Ogeita emezortzi dira nik bildutako adizkiak. Men-dibururen *otoizgai* auetako adizki guziak, laguntzaile

diran eta eztiran aditz guzienak, lan onen atzenean kirian kirian agerarazteko asmoa dut. Emen agirientxoak baizik eztitut erakutsiko. Aginpeneko (imperativoko) adizkiak bost dira liburu onetan irakur ditezkenak: *betor I. 153-2* (*betor au ezta berorikakoa*). Uri gitxitan entzuten da orain *betor au, datoñela esan oi* (dute geienetan) *betorkit emen edozein gurutze II. 136-30; atoz I. 35-24, atozte I. 83-23*. Auezaz gaiñera maiz, maizegi, erabiltzen du *atozea I. 34-1*. Adizkitxo oni nik diodan begia berak izan balio, bein ere etzuen Mendiburuk aterako. Bizkayeraz, *ator ta zatoz ta zatoze-ren* gaiñera, norbait etoñarazteko, *erdu esan oi dugu; eta, Mendiburuk atoz ori ea* gaiñeratzen dion bezala, gure artean askotan esan oi dugu *erdu ia*, Lekeitio *erdia* ere bai. Eztira, ordea, bat. *Erduia atozaearen zentzukidea* (sinónimo) da. Beste txo ori arituta dagoenen batek erabili oi du. Erderazko «caramba» bezalatsu entzuten zaie Lekeitiañai */erdia!! Etori-ren* beste adizkien artean gure egun auestan gutien dantzuzkigunak bi auek dira: *nola nentorke ni II. 59-1, bere lagunen artetik... letozkien naigabeak II. 171-4. Nentorke oñen ordez nendorke Legazpin entzun dut, beste uri geien geienetan etoríko nitzake;* adizkia bera ilik datza. Lau-bost aldetan *banetorke* belañiratu zait, ez baiña «ya vendría» adierazteko «si yo pudiera venir» -en ordez baizik. Beste ori, *letozkien* ori *gulertuko* oteluke orain eñiak?

ETZIN

Andia da ileñietako aditz onezaz gertatzen zaiguna. Orain laurogei bat urterarteko liburu guzietan irakur ditezke beronen adizkiak eta guziak muñtzat *tza* darakuskute. *Infinitivo-an* ostera *tzi* entzuten da gipuz-

keraz, bizkaieraz alderik geienetan *tzu, txu* ere bai: *etzin, etzun, etxun*. *Etzan* toki gutiagotan esan oi da. Beste liburu baten ere eztitut irakurí Mendibururen bi adizki eder auek: *zortzi (egun) baiño len luŕean letzake* (yacería, erderaz) *ilotza* I. 19-9, *gu bertan ilak geuntzazke* (yaceríamos) III. 344-22. Beste seirok Lardizabal ta Ubillos ta Aguireran eskuetatik ere atera zaizkigu: *sutan datzanak el que yace en el fuego* I. 231-31, *zu lotan zautzanean ere ezdatza lo zure Jaungoiko... a aun cuando vos yacéis dormido no yace dormido vuestro Dios* I. 80-15; *gaur loretan bezala arkitzen diran gauzak bigarko,.. ilak dautza* I. 55-17; *Israeldarák beren maña au yateko... bildur bear zuten zetzan lekuan* III. 110-21; *Getsemaniko baratzean lo zeutzan denboran* II. 275-22.

YAKIN

Eztute onen adizkiak zer oartu andirik. *Dakizkit* I. 33-21, eta *zekizkien* I. 53-24. Adizki auek laguntzat *dakizkite* eskatuařen, Mendiburuk *ki* gabe eman zigun au. Ona bere itzak; *gizonei denboraz azten zaizte yakin izandu zituzten gauzetatik geienak edo beintzat anitz, eta dakiztenez ere* (aun de los que saben, *dakizkite*-ren ordezko adizkia) *ezdira beti oroitzen*. I. 74-3. Gero baditeke itz au (lenago esan dudanez) argitaraldiko utsa izatea.

Beste oartxo bat. Lardizabalek, eztakit nondik arruta (eríarengandik ez beintzat) «yo lo sabía, él lo sabía» *niekien, ziekiensan* edo beintzat papereratu zituen. Mendiburuk, eríak bezela, *banekien* I. 21-31, *zekien* I. 53-24, *zekiten* I. 196-15, *genekiena* lo que sabíamos I. 17-9, *etzenekien* I. 9-30, *zekizkien* I. 53-28. Bat badakarkigu, ordea, Lardizabalena diru-

dienas: *Ejipion sartu zenetik ekusi zuen Jesusek len-danik ongi aski ziekiena.* II. 17-1. Beste adizki polit bi ere badakuskigu otoizagietan: *inork lekiken!* ¡quién pudiera saber! II. 256-9; *izuek ez izatera, ez litzake noski arkituko gaur mundu guzi-guzian le-kikenik bat ere a no ser vosotros no se hallaría tal vez hoy en todo el mundo ni uno que pudiera saber.* II. 334-23. Lan onen irugareñen atalean erakutsiko dugunez, *zuek ez izatera erderazko «a no ser por vosotros» en semetzat ar lezake.*

YAÑAIKI

Nastetxo batzuk ageri dira adizki auetan. Batean dio *oni dañaikon* I. 54-24, bestean *dañaikionak* II. 75-1. Lenengo liburuan *dañaizkala* I. 254-17, bigarénean *dañaizkola* II. 278-18, irugareñean (auxe da zuzenena) *dañaizkiola* III. 306-16: lenengoan *oriei da-ñaizten naikunde galduak* I. 199-32 bigarénean *biei aldetik dañaiken* II. 96-5. Irugareñen liburuko 14-gaeren ofialdean *Jerusalendañetatik zeñaizkion zenbait ema-kume eta ofialde berean beraxeago neke ariagaziez urikaldurik negaréz zeñaizkonak.* Atsegina andiz irakurí nuen eta alaxe entzungo duzutela uste dut adizki eder au: *etsaien bat baleñaikit bezala como si me siguiera algún enemigo.* I. 249-37.

YARDUKI

Mendiburu beriraztuari bi geigañitxo ezañi zizkionak *jardun* «continuar» dela dio oyartzuar idazle andiaren aditz au. Gainera beraren eskutikotzat adizki auek eman zizkigun: *diardut, diarduk, diardun, diar-duzu, diardu, diardugu, diarduzute, diardute.* Azken au bai: *ezdakite aurak, ezdakite eroak ez eta zezen-*

ak ere zertan diarduten. II. 129-17. Beste zazpirak irudimen bero baten garetan sortuak dira. Mendibururen aditza *yarduki* edo *jarduki* da ona emen *infinitivo* au ageri duen adibide bat: *Jesusen atsegiañak dira...* *gurekin biotzez biotz jardukitzea* tratar, tener trato III. 398-5. *Jarduki* au, dakutsutenez, ezta erderazko «continuar». Amaika adizki bildu al izan ditut. *Antuste aroaren erakeriakin diardukadala* ocupándome con locura de vanidosa fantasía I. 256-23. Ta gero *diardukazula* I. 263-7; *diardukatenak* III. 299-3, *diarduketenak* (utsa oteda au?) I. 44-26 ta len aipaturiko *zertan diarduten*. Gaiñera *Berak ziardukala* I. 152-30, zuk... *zenerdukala* II. 191-16, *ziñardukela* I. 255-8 ta *ziardukaten* II. 139. 10. Ondañeko onen uts-muts diruditte beste bi auek: *ziarduketen* I. 29-15 ta *ziarduken* I. 152-36.

IBILI

Irugareñen atalean erakutsiko dugunez, itz ikolduak (contraídos) ugari erabiltzen zituen Mendiburuk, bat ere ez ordea adizkietan. Eriak *naama*, on *daikala*, *daukat*, *nao esanañen*, berak beti *narama*, on *dagikala*, *dadukat*, *nago idatzi* oi zuen. Aditz onen adizkiz ere berdin. Eriak nonbait *ibili-ren b* suntsituz adizki ikol auek darabilzki: *dail*, *dailke*, *zaitza*, *baleil...* eta abar. Mendiburuk beti *dabil*, *dabilke*, *zabiltza*, *balebil*. Eriak tokirik geienetan adizki-barneko *n* suntsituañen, berak ez; oso osorik eta arauz erabili oi zituen adizki polit auek: *Adamen ondoren nenbilenean* I. 134-37, *zure eskolan bagenbiltza* I. 209-28, *obe li-zake bakañik bazeñbiltza* I. 40-5, *nola genbilzke gu gabiltzan bezain eskergabeak* III. 283-2. Lan onen azkenean erakutsiko ditut aditz onen ogeita sei adizkiak.

IKUSI

Mendibururen egunetan aditz au guk gure auetan eraman ta *yakin* bezain auréz ta ugari irabiatu (conjugatu) izan zuen. Aditz onen irabiakeran goi-be puxkatxo bat bada bere ta beste Giputz-idazle-artearen: Lardizabalek *gurutzearen auréra begiratzen du eta dakus...* Test. 499-11, Mendiburuk *animak badakusa non dabilen II. 103-*; ark *an dakuski apaizburu... eta Fariseoak* Test. 499-12, onek *badakusatza oraindáñoko gure itz asmo gogorazio guziak I. 84-3*; Zaldibiaŕak batean *dakusgu* Test. 179-15, bestean *dakusu* Ibid. 164-12, Oyartzuar onek *an biok elkar dakusagula I. 208-18*; Asteasuko Aguirrek *zuk zeroék ongiena dakutsu* Confesioko 342-24, Mendiburuk *eta badagikezu, dakusazun bezala...* I. 3-32, Beste liburutan eztut ikusi *Otoizgai* auetako adizki eder au: *jnork lekusken!* quién pudiera verlo I. 159-16, I. 162-20.

IN

Edozein liburu zaŕetan irakurí oi ditugun *indazu* I. 71-8 ta *iguzu* I. 70-37 alde bat utziz, aipa ditzagun subjuntivoko sei adizki eder. *Jaun berak didala* que el mismo señor me dé I. 171-18, *niri didan... doatasuna* para que a mí me dé la bienaventuranza II. 136 36, *berak digula* que él nos dé I. 147-14, *atera zaitzala orien artetik edo dizula... bere laguntza* I. 164-13, *ala diguzula zuk* II. 52-1, *gnai dezu zuk dizun zuri... zeruko gauzen zerbait beri?* I. 292-8.

YOAN

Eriak alderik geienetan *oa* muña aldatu egiten du: *ua* geienak erabili oi dute, batzuk *oo*. Mendiburuk oso-

rik beti. Eriak irugaren adizkietan *ij* gaineratzen dio muñ oni: *dijuia* ta *dijuaz* edo *dijoia* naiz *dijoo* ta *dijoaz* edo *dijooz*. Mendiburuk ere noizbaik *ij* au aintzat arten du, geienetan ez ordea: *il zen atzoko gure bizi-tza, gaurkoa ere ilaz doa* I. 23-5, *gugandik Jangoi-koagana dijoana* I. 49-27. Eta noizbait, onelako adizki bat bi aldiz erabili bear zuenean, lenengo al-dian esango zuen *ij* aintzat artuz, bigařenean *ij* ori gabe; edo berak esaten zuenez, *ij* bage: *Guri adiraz-teagafik nola dijoazen zerura doazenak* I. 209-18. Retoriku andia zan Mendiburu. Aipagaritzat dauzkat auezaz gaiñera beste adizki bi auek: *banindoake* ya iria yo II. 293-4 ta *ezpazindoaz* si vos no fuerais. II. 333-6.

ION

Non nai entzun oi ditugu Mendibururen *diona* lo que dice I. 130-31, *diozue* decís I, 244-21 ta *diote* dicen I. 177-9; ez ordea uřengo adizkiak (flexiones remotas). Eriari galde egin dezogun «yo decía» eta alderik geienetan *esaten nuen* erantzungo liguke. Mendiburuk alabaiñan maiz dakazki adizki auek: *zion él* decía I. 170-34, *geniona* lo que decíamos I. 17-7, *ze-nioten* vosotros decíais I. 253-12.

IRAUN

Osó guti dira onen adizkiak: *dirau* II. 57-34, *dirau-te* I. 52-10; *munduak dirauneño* mientras dura el mundo I. 80-14 ta **badirauzu oraindik** ya duráis todavía. I. 116-11.—Irugarénak okeřunetxo bat ezotendu?—ñq ori bitarteko *n* gabe erabili oi du Mendiburuk: *bizi nazaño* mientras vivo I. 277-24, *oroituko áz bada bizi azaño* pues te acordarás mientras vivas. I. 128-27.

IRUDI

Guti dira aditz onen adizkiak ere: *dirudidala* que parezco II. 376-18, beraz *datorela dirudien naikunde batekin* I. 95-34, *dirudizu* I. 228-34, *dirudite* I. 230-12 ta uñengo auek: *jaio beria zirudien* II. 41-28, *aurarenak ziruditen* II. 192-25 eta *ereak ziruditen-mendietan* I. 156-19. Politen polítena oni deritzat: *ongi lirudike* parecería bien I. 186-9.

ITXEKI

Naparroako alde batuetan *Atxiki* edo *atxiki* da aditz au. Lau dira Mendibururen adizkiak, *a-duna* bat. *Semetasunari ditxezkon gauzak* cosas que se adhieren a la filiación III. 154-15, *Jesus beraren gorputzari ditxezkola* III. 129-23, oni *zitxekola* II. 78-6, *gaztetasuneko asiera txařari askotan datxeko andidenborako ibilera txařagoa* I. 39-24. Ondaŕeko adizki au bezalaxe *a-dunak* dira Leizaáagaren guziak: *datxetala, gatxetzan...* ta beste sei. Zortzirok izan ziran gure egiazko lankide Eguzkitzak bilduak.

II

Sumario. — 1. Lau aditz laguntzaiileak. — 2. **Izan.** Oraingo adizkiak.—3. Orduko adizkiak.—4. Adizki artzaileak.—5. Eraskintxo bat.—6. Flexiones condicionales.—7. Aginpenekoak.—8. **Ukan.** Indicativo presente.—9. Almenezko adizkiak.—10. Adizki artzaile batzuk.—11. Bi mutilko asef ez Cardaberaren aufean.—12. **Edin.** Aginpeneko adizkiak. — 13. Subjuntivokoak. — 14. **Ezan.** Imperativo ta subjuntivokoak.

§ 1. Biga en atal onetan aditz laguntzai en adizkiak (flexiones de verbos auxiliares) ikertu ta azaltzea eskaini nizuten. Lau dira edozein euskalkitan lagun-

tzaile auek: *izan ta ukān* indicativokoak, *edin ta ezan* imperativo-subjuntivo-potencial etakoak. *Ezan* onen ordez bizkaieraz *egin* erabili oi dugu: *Ekarī dezala ta ekari dagiala, autsi dezagun ta ausi dagigun, edan dezaket ta edan dagiket,*

§ 2. *Izan* bizkaieraz bezalatsu irabiatu (konjugatu) zuen Mendiburuk: *naz, az, da, gara, zara, zarazte, dira.* Jesusen Biotzaren Devocioa deritzan liburuan *zara-ren* ordez *zera ta zarazte* esan-beárean *zerate* erabili oi ditu maizenik. Adibide batzuk darakuski-gun. *Ni naz beti-beti nazana* yo soy el que soy eternamente (I. 50-19). *Bizi-biziro nabilen bizi nazañio* para que ande yo muy animado mientras vivo (I. 277-24). *Agertuko naz, nazan hau, aingeruz inguratua* apareceré todo rodeado de ángeles (II. 234"-2). ¿Eztakutsue, lagunak, zein sakon ta edera den *nazan hau*? Gure egun auetan geien geienak solezismo izugarí batez onela erakutsiko lukete esakera ori: *agertuko naiz dena aingeruz inguratua*.

Erderazko «tú eres»-i dagokion adizkia batean *h* ezaíz ta bestean garbi dakarkigu Mendiburuk: *orotuko haz, bada, bizi azaño* pues te acordarás mientras vivas (I. 128"-27); *ekusi bekar diegu nor hazan hit* tenemos que ver quién eres tú (II. 304"-33). Erderazko «es» batzuetan esaten du *da*, beste batzuetan *de*, lenengoa adizkia atzetik conjunción gabe agertzean. *Ezdezazula erabili zere esku altsua ezpada gure bihotzari urrikizko kroskadar edo ukierak eman-teko* no mováis vuestra mano poderosa si no es para dar a nuestro corazón toques de misericordia (I. 87-25); *eman digun gauzarik txikiena ezin irabazi geneza-keena da* la menor cosa que nos ha dado es tal que no podemos ganarla (Jesusen... 50-20). *Goazen ekus-tera... zein andia den* vamos a ver cuán grande es

(l. 158-18); *beti ta beti dena da* es el que es eternamente (l. 50-15). *Da au de zerengatik itzultzen den Morfología Vasca-ko* itz auek darakuskigute. «A más de uno habrá llamado la atención que, siendo *da* en todos los dialectos vascos la tercera persona de indicativo de *izan*, al recibir los afijos conjuntivos que aquí se analizan quede convertido en *de* en la mayoría de ellos. De *da* sacan en B: 1.^º, *dana* «todo, liter. lo que es» y en los demás dialectos *dena*; 2.^º, *dalako* y *delako* porque es. El dialecto *G*, que dice *dena* todo y *den dena* absolutamente todo, se deja llevar de la influencia del B con otras conjunciones: *etorri dalako*, *danean...* en vez de *etorri delako* y *denean* «porque ha venido, cuando ha venido». Los elementos conjuntivos de la conjugación se agregan al núcleo verbal mediante las vocales epentéticas *a*, *e*. La primera es más propia del dialecto B; la segunda, de los demás».

Oyartzundar idazleak *da ori de egiten du*, baina bein ere *gara ta zara ezkitu gare ta zare* itzultzen: *emen garaño* mientras estamos aquí (ll. 318"-29), *bizi zaraño* mientras vivís (l. 2"-16), *Jangoikoarena zarala zu zaran guzia* que vos todo lo que sois, sois de Dios (l. 2-35). Napañoako alde askotan *gara ori oñelaxe esaten dute ta gero conjuntivoren bat itsatsiz gare*. Ona Joakin Lizagañaren adibide batzuk; *zoitanditan sartu gara nos hemos metido en grandes deudas* (*Coplac 117*), *jakinik nola garen* sabiendo cómo estamos (*Ibid. 127*), *ala garela* que somos así (*Ibid. 176*). *Otoizgayak* deritzan liburuan beti *zarazte ageri da erderazko* «vosotros sois» adieratzeko: *zuek zerekiko gizon andi jakintsuak zarazte* vosotros a vuestro juicio sois hombres grandes sabios (l. 231"-20), *beraren baimenik bage sartu zaraztela* que os ha-

béis metido sin su consentimiento (I. 254-25), *antuslea besterik etzarazten gizon ta emakumeak* hombres y mujeres que no sois sino orgullo (I. 8"-25). *Gara ta zara* bezala *dira* ere beti osorik darabil Mendiburuk: *oriek dira alabañan...* pero esos son (II. 131"-20), *egin bear diraneko* para cuando deban hacerse (*Jesusen...* 6-7). Napar askok ostera beti *dire* esan oi dute, conjuntivo gabe ere bai. ¿Zergatik ote? *I-k* beren ezpaineran úrengo *a e itzultzen* duelako.

Mendiburuk bere *Jesusen Biotzaren devocioa* deritzan liburuan *zara-ren* ordez *zera* ta *zarazte-ren* tokian *zerate* maiz erabili zituen.

§ 3.—Goazen orain úrungo irabiamen edo *conjución remotara*. *Nintzan, intzan, zen, giñan, ziñan, ziñazten* ta *ziran* dira adizki auek. Nere lan au luzégitu eztakigun adibide guti erakutsiko ditut. Erderazko «todo»ri dagokion esakera eder bat jakinarazi dizutet len: *nazan hau*. Orain beste bi ezagutuko dituzte: *aldietan uzten ninduen ni... gaitzerako makur-tasunez ta tirikazioz nintzan hau betea* a ratos me dejaban a mí todo lleno de inclinaciones y tendencias al mal (II 73"15); *zirudienaz ardo ona...* *baña beazunez zena mindua* según parecía, buen vino, pero todo agriado de hiel (III. 22-21). ¿Oteda gure egunotan bi «todo» oriek adiarazteko onela esango eluken idazlerik? *ni dena betea—ardo ona zan, baiña beazunez dena mindua*. Mendibururengandik ikas dezagun «todo» ta «todos» oriek bear den bezala erabiltzen. Lan onen irugáren atalean mordoturik agertuko ditut berak or-emenga darakuskigun esakera guziak.

§ 4. Bere *Flexiones receptivas* geien - geienak gaur erabili oi ditugunak dira: *etzait damuz lertzen biotz au* no se me parte de pena este corazón (I. 47"30), *ura aitu zaion eñota bezala geldi-geldirik*

egoin zara estaréis quietos como molino al que se le ha acabado el agua (l. 157"9), *joain zaizkigula orduak eta orduak* que se nos irán horas y horas (l. 99-32). **Morfología Vasca-n** (590-31) *Conjugación familiar* nerakusanean itz auek esan nituen: «las flexiones del auxiliar intransitivo mediante el reflexivo *ki* pierden todas esta característica cuando pasan a ser familiares». Bat edo batek esan dezaiket «eta goiko *joain zaizkigula* ori? eta Mendibururen beste auek *etortzen zaizkidan* (l. 63"9), *etzaizkigu aituko guziak* (l. 18"1) *ki-dun atzizki* auek *gezaldira eñiarenak?*—Bai, baiñan atzizki orien *ki* askotasunaren ezaugarría da (característica de plural), ez artzaileena. Eta len aipaturiko tokian onela neñaion nere usteari: «las viejas flexiones corteses que si bien en contadísimas zonas se oyen todavía (§ 810) *etorri dakit* se me ha venido, *etorri dakigu* se nos ha venido... etc. se convierten en *etorri dat*, *etorri ðaku*». *Etorri zait eta zaigu* (Mendiburuk *zaiku*) esan oi dira euskalki batzuetan. Baditu oregatik Mendiburuk, guñisko, bainan baditu, Burunda-aldeko adizki zaŕak. Ona emen batzuk: *lotzagabekutuko nakio ni* yo he de perderle el respeto (ll. 292"9). *Nakio* eder onen ordez *natzaio* maiz erabiltzen du. ¿*Zertara urbiltzen otegakiozka gu Jesus maitagáiari?* A qué nos acercaremos nosotros al amable Jesús? (III 169"1), *oñela mintzaten zakiozka zu...* *Apez Nagusiari?* así hablás al Sumo Sacerdote? (ll. 292-28). Ori bai, Bizkaierez esan oi dugunez, dabeni daben edo *suum cuique*. Mendibururen *gakiozka* ta *zakiozka* auek baino arauzkoago ditugu *gakizkio* ta *zakizkio*. Berdin gertatu zitzaison orduko adizkietan (en flexiones remotas), geienak nastuak dira, orain entzuten diranak: *urikaldu nintzaion* me compadeci de él (III. 101-8), *gertatzen zitzaidan* me solía acaecer

(I. 258"23), *agertzen zizkitzula* que se os aparecían (I. 246"30)... eta abar. Nasi gabeak, adizki txukunak ere, meazki baiñan irakuítzen ditugu: *berebat geratzen zekigun guri* lo mismo nos sucedía a nosotros (III. 134"31). *Zekigun oren ordez zitzaigun erabili oi da orain.* *Orobak gerfatuko zekien bien ondorengoei* lo mismo les había de suceder a los descendientes de ambos (II. 126"20). Gure egunotan *zitzaien* nastua esan ta idazten da *zekien* erabili-beárean. Mendiburuk berak ere badakar adizki nastu au: *lertu zitzaien edo damuz il ziran* reventaron o murieron de pena (I. 47"31). Bere liburu *Jesusen Biotzaren Devocioan* adizki bat bi eratara ageri da: elaztaldi (edizione) bat-ean garbi, bestean nasia. *Naaman zeritzan Siriako gizon andiari gerfatu zitzaina* (Iruñakoan 196-14 datza adizki nastu au), *Naaman zeritzan Siriako gizon andiari gerfatu zekiona* (adizki txukun au Tolosako elaztaldian 17δ-2 irakuŕ dezake) erderaz lo que le sucedió al gran hombre de Siria llamado Naaman. Gaurko *zitzaison* ta *zitzaionean* nastuen ordez auek erabili zituen berak: *ondasunez betetzen ari zekion* (*zitzaison* esan oi da Gipuzkoan orain) se le estuvo llenando de bienes (I. 145"30), *itza noizbait etorri zekionean* (gaurko gipuzkeraz *zitzaionean*) cuando alguna vez le vino la palabra (I. 182"33).

Lendik dakizue, lagunak, Mendibururen *ozka-dun* adizkien berí. Ona adibide bat edo beste: *Gerokoari bat ere begiratu bage lotu zekizkion Jesusen erantzute utsari* sin mirar a lo futuro se agarraron a la sola respuesta de Jesús (II. 299-19). *Zekizkion-en ordez zekiozkan* ageri da gutxienez iru alde auetan: *asi zekiozkan* (I. 300-19), *urrikaldu ZEKIOZKAN* (II. 361"28), *ETZEKIOZKAN urbildu* (III. 189"2), *bere eraiak igartzen ZEKIOZKALA* (III. 367"29).

§ 5. Eraskintxo bat (komentario txiki bat) gaineratua dezaieguna orain Morfologiako irakaskizun oni «ejemplos de la locución conjuntiva de comparación *bai-... -n* sólo se oyen, que sepamos, en dialecto B y zonas como Mundaka. Aparte de los que en sus obritas ha expuesto un autor contemporáneo (el que traza *estas* líneas), sólo un ejemplo se ha podido recoger en nuestra literatura». Mendibururen egunetako Mondragoar batena da an ageri den erako adibide au: *iru deabruk eruki baga, lasta sakuba BAININTZAN ala, kendu jeustez aiak tres demonios sin compasión, como si fuera yo saco de paja, así me han quitado los ayes* (EUSKALZALE I. 405''24). *Banintz* si yo fuera, *bainintzan* como si yo fuera. Osorik ezañen, nolabait Mendibururen OTOITZGAI auetan nabari da «locución conjuntiva» au. *Egondu BANINTZ si yo hubiera estado* (I. 131''1); *ero bat BAININTZ bezala* como si yo fuera un loco (II. 283-35); *neurígaña BALIZ* si fuera mensurable (I. 59''8) *deusez bat BAILIZ bezala* como si fuera él una nada; *indañen bear arkitu BALIZ* si se hubiera encontrado falto de fuerzas (II. 60-19) *ta gazte bat BAILIZ bezala* como si fuera un joven (II. 38''-27).

Baliz oñen ordez *balitz* esan oi da orain. Mendiburuk ordea arauz eta, legez erabili zituen batean *banintz* ta beztea *baliz t gabe*. *T* ori consonante baten uñen sortzen zaigu. Erderako «manzana» mantzanatu zaigun bezala *baninz* ori *banintz* itzultzen da.

§ 6. **Flexiones condicionales.** Alde gutxi da Mendibururen *ta* gure adizki-artearen. *Azkenean izain nintzake* al fin habría yo de ser (I. 48-10), *esker gabe txar galdu bat nintzake ni* yo sería un pobre perdido ingrato (II. 45''-29). Guk bezala ark ere *giñake, ziñake, ta lirake* dakarzki. Guk *litzake*, ark *lizake*. Gure *litzake* oírek *t nintzake-ren* kutsuz artu du. Guk

ziñateke bezala ark ziñazkee. Bada ordea otoitzgai auetan guk erabiltzen eztugun zerbait. *Amorez bertan urtzen EZLIRALA* (I. 179"-24). *Eregeren begietara itzu-liko LIRANAK* (III. 96"-23), *komuniatzen LIRANETATIK* (III. 111"-10). Eriak orain, nik dakidala beintzat, eztarabilzki adizki oriek.

§ 7. IMPERATIVO. Lendik dakigu *izan* aditz onek imperativoko adizki guziak zearo galduak dituela. *Edin* lagun duela agertzen zaigu orain apal-apal *izan* ori. *Izan nadin, izan adi, izan bedi* esan oi dugu erderazko «sea yo, sé tú, sea él» adiarazteko. Mendi-bururen eraz *nazan, az, biz, garan, zara, zarazte* ta *bira* izango ziran adizki oriek. Berak, alabainan, adizki auetatik bakarío bat darakusku: *ala biz, bai jařen! bai* así sea, sí, amen (II. 334-11), *biz bada gaurgero* sea pues en adelante (JESUSEN... 319-3).

UKAN

Nere lan au luzégi ta gokaikári-samar itzul eztakigun, alik labuén aztertuko ditut laguntzaile onen adizkiak; beste bienak, aleginez beintzat, ala ere labuágago.

§ 8. INDICATIVO PRESENTE. Gipuzkeraz eríak era-biltzen eztituen adizkiak eta Euskaltzaindiak aintzat artutakoak auek dira: *dut, duk, dun, dugu*. Otoitzgai auetan bein ere eztitut irakuri *duzu ta duyute*. Beti *dezu ta dezute* esan oi zuen Mendiburuk. *Duk* adizkiari zerbait gaineratu bear dionetan, aldiz *k* agerian uzten du, aldiz ordea kendu: *begirok bada zer egiten* duen mira pues lo que haces (I. 127-27), *itxok guti bat, itxok; ezduk au izain, ez, uste DUKAN diñako irabazia* aguarda un poco, aguarda; esto no ha de ser, no, ganancia tan grande como tú crees (I. 140-30). Erderazko «me han traído» Astigáragan bezala *ekarí naute*

dakar geienetan Mendiburuk; bein edo bein, ordea; Bizkaieraz bezala *nabe* ere bai, baiñan *v b* oren ordez ezañiz: *alkez ta damuz beterik ekusten NAVENEAN, orain ekusten NAVEN bezala* cuando me ven lleno de vergüenza y de pesar como me ven ahora (I. 47-15). Laguntzaile onen adizki geienak Ubilosek, Aguirrek eta beste Giputz idazleak bezalatsu eratu zituen. Lentxeago esandakoa biñesan dezagun emen: *ozka-zale* zela gure Oyartzundaí idazle bikaiñ au. Besteak bezala onek ere *adirazi DIZKIDAN* (I. 132"-35), *egiten DIZKIDATZU* (I. 46-2), *egin DIZKITZUT* (I. 61"-13), *egiten DIZKITZUGUN* (II. 293-5) dakarzki; baina *o artzailea* bitartean sartzen denetan agur gure *zki* eder ori, nondik *edo* andik laster agertuko du burua bere *ozka* ziztrintxoak: *eragiten DIOZKA* (I. 32-8) *dizkio-ren* ordez, *Jangoikoari zor DIOZKAGUNAK* (I. 58-6) *dizkiogunak* esan beárean, *zure laguntzari zor DIOZKADAN* (I. 107"-17) *dizkiodan-tzat*, *eman DIOZKATEN ondasun andiekin* (I. 192-7) *dizkioten* esan bear zuela. Eztezagun onetan Mendiburu eredutzat artu. Orduko irabiamenean (en conjugación remota) ere orobat egin zuen: *genion ta zenion ta zion-etik gauza asko dirala adiarazteko genizkion ta zenizkion ta zizkion-en* ordez *ozka-dun* adizki auek erabili zituen: *eman izandu GENIOZKAN* (II. 271-33), *Jesusi aŕerazi ZENIOZKAN* (III. 371-20), *Kristo Jaunak agertu ZIOZKAN* (I. 66-29), *barkatu BALIOZKA bezala* (II. 53"-7). Noizean beinka *ozka* onen ordeztat otza ere ateratzen digu: *beriro eskatuko DIOTZAGUN beste askorekin* (JESUSEN... 232-25), *debozio oni zor ziotzala* (*Ibid.* 80-12), *emain GENIOTZAKE mila* (*Ibid.* 49-1).

§ 9. ALMENEZKO ADIZKIAK (flexiones potenciales). Gure egun auetan erderazko «yo puedo hacerlo» *nik egin dezaket* esan oi du eriak. Adizki au badarabil

Mendiburuk ere: *¿ezda hau ekus DEZAKEDAN erakeri-rik andiena?* no es esto la mayor locura que puedo ver? (I. 57-12); *gal nazakezu noiznai* podéis perderme cuando quisierais (I. 38'32), *erdis DEZAKEGULAKO uste osoa* plena confianza de que podemos alcanzarlo (I. 187-24). Adizki auek baino zaíago dirudite *ukan laguntzailearenak*. Bizkaieraz bezala galduak dira Giputzez ere oraingo adizkiak (flexiones próximas). Ona **Morfología Vasca-n** onézaz esanikoa: «el auxiliar transitivo forma con esta característica *ke* dos clases de flexiones: de indicativo y subjuntivo. En indicativo sólo viven hoy las flexiones remotas, habiendo muerto las de conjugación próxima (1). Algunas de éstas se leen en nuestros viejos autores, tales como *demanak bizian berea besteri, doke negaría beti* quien diera en vida lo suyo a otro, tendrá llanto para siempre (*Refranes*, 299)... e. a. Bizkaian bezala Gipuzkoako uri ta urixko askotan galdetu izan dut bizi ote-diran *duket, dukek, duken, duke...* eta beron antzeko beste adizkiren batzuk. Ezetz erantzun zidaten non nai. Asko dakuskigu otoitzgai auetan: *al DUKEDAN argirik andiena* la mayor luz que pueda. (I. 188-20), *nekerik beríz ezin DUKEN gorputzarekin* con el cuerpo que no puede de nuevo tener penas (III. 124'34), *berak digula, digun amorea gatik, guk dukegun berí bien zatirik andiena* que él nos dé, por el amor que nos tiene, la mayor porción de las dos nuevas que nosotros podemos (¿comprender?). (I. 170'18), *dukezun aldi guzietan* todas las veces que podéis (III. 138'12).

Onelako adizkiak gure egunetan eztitugula entzuten esan dut, Bizkai-ta Gipuzkeraz ez. Napañoako ibar

(1) **MORFOL. VASCA**, pág. 770-16...

batzuetan, ordea, badantzuzkigu orainik. Aezkoan entzunak ona batzuk: *eztauket* no puedo, *egin doket* puedo hacerlo, *eztoket gori egin* no puedo hacer eso.

Aipatu ditzagun *Morfología Vasca-ren* beste itz batzuk. «No son por cierto pocas las flexiones potenciales de indicativo remoto que se recogen en viejos autores. También el pueblo, aun hoy, las dice con toda espontaneidad y en la mayor parte de las localidades al efecto consultadas». Gipuzkeraz ala ere uri guti batzuetan entzun nituen: *ik eman ukean, ark eman zukean* Ataunen; *nik jan nukean, ark jan zukean* Astigarragan ta Igeldon. Onelako adizkietan *ke* orek maiz almenik eztu erakusten: *encliticatxo* bat, zentzunik gabeko itsaskintxo bat izaten da, ez beste gauzarik. *Zure Jauregia ikusi nai NUKEAN nik yo quería ver vuestro palacio (ll. 224-35)* ezta ordea «yo podía querer ver». *Obe nukean nik nere lan au egin izandu banu lenago* (ll. 13-30). Itz auetan ere al iza-terik ezta nabari.

§ 10. Beríz ere zabal dezagun **Morfología Vasca**, Mendibururen adizki bitxi-bitxi batzuk zuztaréz aztertzeko. «El segundo elemento reflexivo de recipientes transitivos, sinónimo del anterior, es el infijo *ra...* como elemento de conjugación sólo se oye en AN y dialectos occidentales. Así como *tsi* se pospone al núcleo, éste, su sinónimo, se le antepone, colocándose entre el elemento objetivo y el núcleo: *itxi gura badeutsazue* si queréis dejarle (*Per. Ab.* 206-15), *testifikatzen neruela* que yo les testificaba (*Leiz. Act. XX-21*): *u + tsa* en el primero, *ra + u* en el segundo ejemplo». Leizaáragaren adibide batzuk *drauet eta besteren bat erakutsita gero, onela daŕao*: en otros autores se lee *darauet* o *derauet*. Pierre d'Urt en su *Grammaire basque* pág. 122 dice continuamente *de-*

raut, derauk, derauzkio... etc. Andando el tiempo el pueblo ha hecho, según las zonas, una contracción—la de *au* en *o*— y la absorción de la *r* de este elemento reflexivo.

Gure Mendiburuk baditu onelako adizki *ra*-dunak, baina —afigarí dirudien— gauza asko gaitzat artuta soil-soilik (únicamente con objetos plurales) erabiltzen ditu. Eriaren adizki auek *otedizkit, dizkik, dizkio, dizkigu, dizkitzut, dizkitzugu, dizkitzute, genizkion...* onela dakarzkigu bere otoitzgai luze auetan: *eragozten OTEDEREZKIT niri* me impedirá acaso a mí... (II. 381"11), *bidegabeko gauzak emain DEROZKIK ere Iurak* tu tierra te producirá cosas defectuosas (I. 129-37), *Jesusi eragiten DEROZKAN gauzak* las cosas que obliga a Jesús a hacer (II. 330-35), *eretzen DEROZKIGU geren bañen guziak* nos abrasa todas nuestras entrañas (I. 261"20), *aferaziko DEROZKITZUT zure one-rako diran bideak* os obligaré a tomar los medios que sean para vuestro bien (I. 249-23), *zuri guk emain erderozkitzugu* a vos no os los daremos (III. 100"6), *zeren zuri ere kentzen DEROZKITZUTEN...* porque también a vos os los suelen quitar (II. 171"25), *aferazi GENEROZKAN gure Jesus maitagaríari* se los hicimos tomar a nuestro amable Jesús (III. 279-27). Beti objeto plural-dunak: Leizaáragak eta Axulaérek eta Yoannateguik bezala *darot, darok, daron...* *darogu...* edo beron zentzukide *derot, derok, deron, derogu* Burundakoak bein ere eztitu Mendiburuk erabiltzen: beti *diot, diok, dion...* *diogu*. «Objeto plural» dunak direnean batzuetan *dizkit, dizkik, dizkin...* beste batzuetan *derozkit, derozkik, derozkin; derezkit, derezkik...* ere bai. JESUSEN BIOTZAREN DEVOCIOA-ren liburuau *ra* ere badio bein: *ematen DERAZKIDAN atsegir ta gustoak* los placeres y gustos que me suelen dar (*Ibid.* 81-12).

§ 11. Gertakizun polit bat aipatzen du Cardaberaz-ek *Eusqueraren berri onac* deritzan liburuan (pág. 31). «Eskola-mutil bi bein batean Euskeraren gaiñean beren eztabaidetan ikusi nituen. Bata bizkaitaŕa ta bestea gipuzkoára zan. Beren modura aseŕatu ziran ta ezin besterik egin ta deadaŕari biak eman zio-ten. Bizkaitaŕak deadar *kin kin kin* ta gipuzkoárák *gaz gaz gaz*; eta ondo aspertu ziranean, bereala pa-keak egin zituzten». Cardaberaz lekuko ta entzule zu-tela bi mutilko aiek bezala, gu gerok lekuko garelarik, lau alde berexitako euskaldun, adizki artzaile auek bu-rutan artuz, izmizka asiko balira, Bizkaikoari besteak *dautsat dautsat dautsat* esan al izango liokete, Lapur-di-aldekoari *darot darot darot*, urutiko napar Sarraitzu ta Aezkoárai *dakot dakot dakot*, Gipuzkoar geienai *diot diot diot*. Lau mutil auen artean *zein* uste duzute, bere gaitziken edo gaitz-deiturari politena eritziz, pozen ta befeen ikusiko genukela? Nire ustez giputza, beraren *diot diot diot* oŕi beste irurai baino ozenago, biguñago ta entzungariago leritzokelako. Otsa bai, neronen belárietan ere ots zoliago egiten du *diot* oŕek; buruan ordea beste irurak bezain oso ezta ageri. *Dautsat-ek ts, darot-ek r, dakot-ek k* oŕen bi-dez artzailetasuna (la cualidad de recipiente) darakus-kiguten artean, tasun au *diot-ek* eztu ageri. Beronen lau izki (letra) auek beste zeren baten ezaugariak ditugu: *d* gauza bat, *i* aditz-muiña da (núcleo verbal), *o* berari, *t* nik. **Morfología Vasca-n** (§ 806) «origen probable de este núcleo *i* parece ser la conjugación familiar» esan nuen. Eritzi onen berí nai duenak angoleñoak irakur bitza; ta goazen aurera.

EDIN

§ 12. Aginpeneko (imperativoko) adizkiak beste liburu askotan irakurri ta edozein uri ta urixkotan entzun ditezke; eriak, orain beintzat, uldurik (contraídos) esaten dituela: beste alderik ezta. Mendiburuk *nadin*, *adi*, *bedi*; eriak *naiñ*; *ai* (*ari ere bai*) ta *bei*. Askoren adizkiak (flexiones plurales) eztigute goi-berik (diferentziarik) erakusten: *gaitezen*, *zaitez*, *zaitezte*, *bitez*. Beste zerbait darakus gainera gure maisuak: laguntzaile onezaz *infinitivoak* azkeneko *tu* gabe erabiltzea: *zentzatu*, *oroitu*, *ařitu* ta *gelditu*-ren ordez *zentza*, *oroi*, *aři*, *geldi*. Ona adibide batzuk: *zentza gaitezen* corrijámonos (I. 276"-8), *oroi zaitez* acordaos (I. 37"-24), *aři zaitezte* asombraos (I. 206"-36), *geldi bitez bat egiñak zurea ta nere gogoa* quedarse convertidos en una vuestra mente y la mía (I. 86-5).

Artzaileduen adizkietan ere (en flexiones de recipiente) ezta alde andirik, bakařetan (singularekoetan) bat ere ez. *Sar bekit* entreseme (II. 90-21), *eska bekio* pídasele (JESUSEN... 181-15), *eran bekie* dígaseles (II. 362-34). Artzailea irugárena denean edo adizkiak bere barnean *o* dadukanean, agur arauak, *ozka* ta *otza* laster erneko dira: *uřikal zakizkit* compadeceos de mí (I. 63"-12), *lagun zakizkigu* ayudadnos (II. 129-34); eta *gakizkion*-en ordez *asi gakiozkan* empecémosle (II. 214"-30), *zakizkio* erabili-beárean *mintza zakio-tza* habladle (I. 4-35), *asi zakiozka* empezadle (III. 208-2).

§ 13. Subjuntivoko adizkietan ere, orientan bezalaxe, iru gauza auek nabari dira: 1.^a, eriaren ulketak (contracciones) edo *edin*-en *d* jateak eztituela bakařetan (singularekoetan) egiten; 2.^a, infinitivoak *tu* gabe erabili *oi* dituela; 3.^a, *ozka*-dun adizkiak (*ozka* gaixo

au gabekoa ere badu gutienez adizki bat). *An izan nadin* para que yo sea allí (I. 22"1), *maiz neka nadila* que me fatigue con frecuencia (I. 291"-16), *il adin artean* mientras mueras (I. 129-8), *sendor dedin* para que se robustezca (I. 4"-9), *izan ditezela* que sean (II. 101-6). *Bero dakion...* *biotza* para que se le caliente el corazón (JESUSEN... 101-16), *gèrta dakigula* que nos acontezca (I. 209-35), *sar dakizun* para que se os entre (I. 80-25), *uríkal DAKIOZKAN* para que se le compadézcan (II. 377-18), *eta eman dakiozkala-ren ordez eman DAKIZKIALA gure Jaungoikoari eman-al adiñ esker* que se le den a nuestro Dios cuantas gracias se puedan (I. 85-13).

Erderazko «cuando yo me haga hombre» ta «cuando muramos» «cuando yo me hago» ta «cuando morimos» bezala dakuskigu; *egin nadinean* ta *il gaizenean* esan-beárean *gizon egiten nazanean* (II. 150-21). **Morfología Vasca-n** (p. 671-21) onelaxe erakutsi zan au: el pueblo apela con sobrada frecuencia al presente habitual de indicativo, cuando se trata de los subjuntivos temporales *nean*, *neko*, *netik*, *narte* y *nartean*; diciendo, en vez de *il nadinean* o *naitenean*, *iltzen nazanean* liter. cuando yo suelo morir... En esto habrá influído sin duda la analogía con otros verbos conjugables. En éstos, efectivamente, no hay verdadera flexión de subjuntivo. *Natoñenean* significa cuando vengo o venga, *abileneko* para cuando andas o andes, *doanetik* desde que va o vaya... etc., de tal modo que en ellos la idea de subjuntivo está únicamente en la mente del que habla. El pueblo por instintiva analogía da a las flexiones indicativas *naz*, *az*, *da*, *gara*, etc. significación de subjuntivo que de suyo no la tienen».

Dakuskunez, Mendiburu onetan eŕiak berarekin

eraman zuen. Beste adizki eder onetan ez. Eriak «si yo entonces muriera» adiarazteko, *edin* utzi ta *izan* laguntzailetzat artuz, *ilko banintz* esaten du, gure egunotan beintzat. Begira zein mamintsuak diren Mendibururen adizki auek: *izan BANENDI ni ere...* si también yo fuera. (l. 19' 30), *zentza banendi* si me corrigiera (l. 292' 7), *nere gogoan sar baledi* si entrara en mi mente (l. 38-17) *erdira balekit biotza* si se me partiera el corazón (JESUSEN... 372-24). Beste oar asko egin gabe utzi ta goazen laugaaren laguntzailea aztertzera.

EZAN

§ 14. Aginpeneko edo imperativoko adizkiak eriak ederki, geienak beintzat, ederki gordeak daduzka. Irugarénekoak ez. Uri ta urixko geienetan *eman beza* ta *bezate*, *ekari bitza* ta *bitzate* berorika itz egiten denetarako daduzkate ta orien ordez *dezala* ta *dezatela*, *ditzala* ta *ditzatela* darabiltzate ezpaiñetan. Mendiburuk *ekus BEZA edozeinek* véalo cualquiera (III. 306-3), *usketa guziak utz BITZA* dejé todas sus faltas (III. 306-15), *eran BEZATE eran al adiña confesari onak* digan cuanto puedan decir los buenos confessores (l. 147-33). Bururatu dezagun len irakatsitako zerbaite. «Hay otra característica de objeto plural muy curiosa, no ciertamente por poco oída, sino por su limitado radio de acción. Es *it*, que sólo se usa en flexiones del auxiliar transitivo precediendo al núcleo *u* en indicativo (*ekari ditugu* los hemos traído) y al *za* en otros modos: *ekari ditzala*, plural de *dezala*, que los traiga... (1). Mendibururen egunetan aditzaren gaiak etzituen iñork bear bezala aztertu. Humboldt-ek dionez Astarloa izan zan ikaste sakon onetan lenengo

(1) MORFOLOGÍA VASCA, 543-31...

uratsak eman zituena (1). Ezta beraz aīgarí Mendiburen adizkietan noiztanka ustxo bat edo beste agertzea. *Idiki itzazu ta zabal itzazu esan-beáean idiki zatzu zere begiak abrid vuestros ojos* (III. 101-27), *zabal izkitzu abridlos* (I. 90'10) irakurtzen dugu; eta erderazko «quitensele sus ataduras» adiarazteko, *ken bitzaio esan beáean, ken bekiozta bere lokafíak idatzi zuen* (II. 209-22). Bene-benetan aīgarí dena auxe bai bada: gure euskera amai gabeko ta sakon onek beronen sustrai ta eroak ilunpean zituelarik, idazle batetik, Mendiburuk, onen yasean ta ederki bere adizkiak ugari ta geientsuak garbi ta kutsu gabe erabili izatea.

Beste Giputz idazle geienak, zertan ari diren igarí gabe, maiz laguntzaile baten ordez beste bat artzen dute, gipuzkerazko *ezan* utzi ta Bizkaierazko *egin* artu. Eriak ere tokirik geienetan berdin egiten du. Mendiburuk, nik dakidala, bein baizik etzuen aldaketa au egin. *Begira zaiezua* «miradles» dio bein (I. 92'3) ta beste beintxotan *begira egiezu* (I. 208-5).

Edin aztertzean esan dugu eriak galduak daduz-kala *il banendi* ta *baledi* ta beron ordez *ilko banintza* ta *balitz* erabili oi dituela. Orobak gertatzen da laguntzaile onezaz ere. «Si yo hiciera una cosa «eta» si yo hiciera varias cosas» eriak gaur non nai *egingo banuta* *egingo banitu* esaten du. Mendiburuk adizki eder auek dakarzki: *egin baneza nik* (I. 283-14) ta *egin banitza gaurero nik* (I. 292'8), si yo los cogiera *ar banitza* (I. 56'13). Bi tokitan *banitza* irakuri dut *banitza* onen ordez: *ezagu banitza* (I. 48-4), *ura al banitza* (II. 133-35). Bitarteko *n* ori aīotza da adizki orietan.

Egun oso bat gutxi izango nuke aditz laguntzaile

(1) MORF. VASCA, 802-20.

onen adizki guziak, Mendibururenak, banan banan azaltzeko.

Atseden bat ar dezagun lan onen irugařen atalean sartu orduko.

III

Sumario.—1. Mordolokadak.—2. Erdalkeria.—3. Bizkai-ko itz ta esakerak.—4. Esakera eder batzuk.—5. Mendibu-ruk zenbait atzizki nola dārabilzkien.—6. Bere zeapan (descripción) bat.

§ 1. Mendibururen eskutiko lanetan ikasgarí dira ez bakařik orainarte aztertu duguna — idazkiak — baita beraren idatzankera (estilo) ere. Edozein idazle zařen eskutik zer on askoren artean akasdun zerbait ere sortu da. Ezta beraz ařigari Mendibururen leřoe-tan ere esakera eder ugari ta ozenai mordolokada ta erdalkeria bat edo bestetxok lagun egitea.

Norbaitek eta bear bada nortzukbait itz zakar ori lenengo aldiz belařiratu naiz begiratu zaienean, galde egin dezakete ţzer dugu mordolokada? Ona zer den. Greziako Zilia ziritzaison unean Rodas-aldetiko or-emenkari batzuk uri bat sortu edo beintzat beren antzekotu omenzuten, Soloi izendun uria. Beren yatoríz-ko mintzoz nasi zuten inguru aietakoa ta neste artatiko izkuntza Atenas-aldekoen ezpaineran *soloikismos* izan zan. Ařezkero «Solecismo», letra bat gora-bera, edozein izkuntzatan, naiz alemanez naiz frantzesez, edozein erderatan solecismo izendatu oi dute onelako izkera nasia. Ţein euskaldunek ezotedaki euskera-mordolo ta erdera-mordolo zer diren? Euskal-meus-kal, erdal-merdal esakeratxoak. Solecismo ofi *mordolokatxa* baino egokiago datorkion itzik eztazagut.

Norbaitek, gorago agerturiko sumarioa naiz entzun naiz irakurtzean, izan diteke idazle bat goratzeko lanean bere mordolo-

kada ta erdalkeria erakusteari afigaſi eriztea. Mendiburu idazlearen tankera ikasteko asmoz asi dut nikene lantxo au, dena denez agertzeko, ez ordea goratzeko, bératzeko ala ere gutiago. Gure izkera sakon ta ingurukoen antz gabeko au azaletik bazik etzuten ikasi Mendibururen egunetan eta oso gutik. Mordoloka da ta erdaleria geiago ez ediretea auxe bai, auxe da afitzekoa. Azter ditzagun bada gogo onez Mendibururen lefoak. Zuzen eztiranak irakuriz okefuneak alde bat uzten ikasiko dugu. Arauz ta gainera lirainki eginak direnak (eta geienak olakoitzeak ditugu) arauz idazten irakatsiko digute.

Ogei bat mortxakatan erakutsiko ditut mordolokadak.

A) Mugaitza (artikulua), aoz naiz eskuz, batean ezari, bestean kendu, ofelaxe erabiltzen dugu. Batean «gizona nerekin etori zan», bestean «edozein gizon erioaren bildur izaten da». Mendiburuk itz askoren azkeneko *a*, onelakoxe *a* bezala, aldakor bailitzan, ezari-kenduka erabiltzen du. Ait *eternoa* I. 169”14, ait *eternoak* I. 214”33, *asm al diteken baño gauz andiago bat* I. 59”10, *bizitz onetarako egin ninduzun zuk* I. 83”14, *garbier au* II. 161-31 zure *laguntz* I. 83-13, *ais aski* muy fácilmente *aisa aski-ren* ordez (III. 85-10?), *dudarekin bad ere* I. 84-3, *ala bad ere dagigun egin bear duguna* I. 99”16, *Fest andi* II. 252-19, *Ibiler onen* II. 149-2, *Trinitateko bigařen person* I. 204”4, *lots guzia* II. 54-18, batean *bizitza gaistoak* II. 364-23 eta bestean *bizitz hau* (Ibíd.), *eskaler onetan* III. 308”32, *kařoz onen olak* III. 323”31; *sakrifizio, ofrend edo present andi bat* III. 400-21, *eskaer guztiz ona* III. 388-24, *gure Jesusen kutx edo ark eder aldareko sakramentua* III. 365-7, *Eliz bat Jerusalenen egin-artean* III. 361”3, *ezpat zořotz bat* III. 211”20), *arantz luze gogořez* II. 365-17.

B) Arira datozi *Morfología Vasca*-ko itz auek: «debido a que en las lenguas románicas que rodean a

la nuestra, los demostrativos de los tres grados se confunden muchas veces, empleando por ejemplo «así» para indicar «de este modo, de ese modo, de aquel modo», «tan» para designar igualmente los tres grados; por esta razón, y en virtud indudablemente de esta influencia románica, muchos vascos emplean generalmente el demostrativo de tercer grado en vez del segundo y del primero». (*Morfología Vasca*, página 213-34...). Mendiburuk ere *ona nola* esan beáean *ara nola* dio I. 2-2. Geienetan, ordea, eztu onetan mordolokadarik egiten: *oña zeriaratzen den... arima* I. 147”30 eta esakerak aztertzean ikusiko ditugun adibide batzuetan (Ikus 56-gaén ofialdean 0).

Z) *Aurtasun* esan zuen *aurtzaro-ren* ordez. ¿*Ezotekarte aurtasuneko edo gazte-denborako zuen asitze txařak?* I. 45-16. Norbaiti gogoratu lezaioke oartzea: «*Aurtasuna niñez ezalda? Aurtzaroa ere ezalda niñez?* — Bai, yauna — *¿Eta bat eztirala?* — Eztira bat, bana dira. Gure *astia ta aldia*, erderaz bata ta bestea «tiempo» izanařen, bana dira; euskerazko *ařeba ta aizpă*, erderaz biak «hermana» izan ta ere, bana dira. Onelaxe *aurtasuna ta aurtzaroa* ere: biak dira «niñez»; bainan lenengoa, aurtasuna, la niñez en abstracto da ta *aurtzaroa* beriz la época de la niñez. *Gaztetasun* ere esan zuen *gaztezaroa-ren* ordez: *aurtasun loiaren ondotik etorri zen nere gaztetasun loiagoa* (I. 45”21).

D) Erderazko «que le llama, que le invoca» bat-ean dio lapurtařak bezala, ederki, *deitzen duela* ta bileño beraxeago bizkai ta gipuzkeraz bezala, gaizki, *deitzen diola*. Lan onen lenengo atalean esan nuenez, Mendiburu *eřetoriku* andia zan ta gauza bat bi aldiz berdin esateari etzeritzaión eder. Onegatik erderazko «Dios» berak beti *Jangoiko* esanareň, bi aldiz itz au

aipatu bear zuenetan, bigáenerako *Jainkoa* artzen zuen. Erderazko «vuestro» *tzat zure* beti erabiliafen, ona bi aldiz berdin ez esateaén zer egin zuen: *zure gorputz ori zere Jangoikoak eman zizunean* I. 11-27.

E) *Egiazki-ren ordez egiaiki* dio bein II. 335-7. ¿Elaztegiko (imprentako) ustxoren bat ezoteda?

F) *I uldu-beáean agerian uzten du noitzanka. Orain, bai, orain asitzen naz ezagutzen* I. 45-33. *Asitzen naz* arauzko esakera da, *asitzen naz* mordolokadatxo bat. Orialdean bertan, amabost leíro gorago, *zuen asitze txařetik irakur diteke aste txařetik* esan-beáean.

G) Mordolokadatxo au eřiak ere askotan egiten du. *Itzultzen da Jesus... Judasekin zetozen soldadu ta gizon guzietara* II. 279'1. *Gizon guziengana* da arauzko esakera. *Morfología Vasca-n* 313-7 «no hay vasco que diga *zezenera* por *zezenagana* o *zezenarengana*» esan ta gero itz auek gaineratu nituen: en plural es muy frecuente valerse de esos vocablos como si fueran de seres inanimados: *lagunetara* por *lagunakana*. Eta Leizaáagaren *ardi galduetara ai-patu-ondoan*» *ardi galduakana* o *galduengana* suena tan bien por lo menos» esan nuen.

H) *Ařiturik gelditu zen Pilatos ekusi zuenean Judatarák, Jesus utzirik, artu zufela Bařabas, lapur gaisto, gizon-ilgilea* II. 348-12. Arauzko ta egiazko euskalitza *iltzaillea* da, *ilgilea* ez. Len aipaturiko liburu ořetan (*Morfología Vasca* 75-18) *gile* onezaz onako itz auek ageri dira «es sufijo pleonástico, compuesto de dos agentes: *gin* y *le*. Su tema, como el de *gin*, es siempre un sustantivo». Erderazko «matador, asesino», «matar-i» dagokion aditz zâr eder *eran* orain esan ezáfen, *eraile* edo *eraile* egun ere entzun oida.

I) *Eginen naz, bai, eginen naz gizon, gizon egi-*

teko nere hordua etortzen denean; ta gizon egiten nazanean, zure ta zure ondorengoen odoletik artuko dut nik nere gizatasuna I. 143'25... Baten ordez bi dira itz auetan dakuskigun mordolokadatxoak. Arauzko esakerak beste auek dira: *ordua etori dite-nean ta gizon egin nadinean.* Zabal dezagun beriz ere len aipaturiko liburua. «El pueblo apela con sobrada frecuencia al presente habitual de indicativo, cuando se trata de los conjuntivos temporales *nean, neko, netik, narte y nartean;* diciendo, en vez de *il nadinean* o *naitenean, ilten nazanean* liter. cuando yo suelo morir, en lugar de *il adineko* o *aiteneko, ilten azaneko;* por *il dadinetik* o *daienetik, ilten danetik;* sustituyendo *ilten gareanarte a il gaizanarte;* y en vez de *il daizanartean, ilten diranartean*». Mendiburuk beste nonbait ere (II. 150'21) *il gai-zanean esan-beáean iltzen garanean ezañi zuen.* ¿Zertan otedatza esakera auen mordolotasuna? Subjuntivo ko laguntzailén ordez indicativo koak artzean: *edin-en ordez izan ta ezan-en ordez ukana.* Leizarragaren esakera eder au (Joan. XII-47) *baldin neork entzun baditza ene hitzak* (ederago izango zan *ene hitzak entzun baditza* atera balu) oraingo idazlerik geienak, onela mordolotuz, emango lukete: *baldin neork ene hitzak entzuten baditu.*

J) Bein baino geiagotan oker samar darakus Mendiburuk *le atzikzia.* *Morfología Vasca* (78-24..) *le onezaz auxe dio:* agente de verbos infinitivos terminados en *i* o *n.* El verbo ha de ser transitivo, pues con los neutros no cabe el uso de este sufijo. No se puede decir, ni dice el pueblo, *egole* por el que está, *yauste* o *erorle* por el que cae. Larramendi, no acordándose de esto, creó, para designar el vocablo correo, el incorrecto neologismo *yoan-etorlea...* Así como la

le)

i final se elide ante *é* siempre que se pueda, la *n* se elide en cada caso. De *egin*, *eman*, *erún* nacen *egile* hacedor, *emale* dador, *erule* ponedora de huevos (gallina). Ona Mendibururen itz araugabeko batzuk: *emendik aienatuak izain dira etorle berak* (II. 225-12), *zori oneko ibil-le zuzena ni* (II. 226-21), *gure Aita ezin maitaleagoa da gure Jangoiko egile au* (II. 227"35), *gure garaiñe madarikatua* (II. 249-11), *sartzen da gero Eŕege ezteilea* (III. 296"35), *atsegin-zaleak, jostaketen bilaleak* (III. 392"6).

K) Infinitivoen azkeneko *n te-ren* auŕean beti uldu (kendu) egiten dugu: *egitea, ez egintea; entzuleko, ez ordea entzunteko...* eta beste eun, ezunerik edo excepción gabe. Mendiburuk bein ezunetxo bat asmatu zuen: *atozte, nik emain dizuet, zeren lanean iraunteko, behar dezuten janari indartsu nere grazia* (I. 98-18).

L) *Hari zaitezke bada nai adiña denboraz Jangoikoaren izate andi-luze-zabala neuritzten ta neuritzten* dio Mendiburuk I. 59"16, eta itz auen esker-aldean beste auek dakarzki: *¿nork arkituko du edo neurituko Jaunaren tokia?* I. 59-15. *Neurí-ren* ordez Frantzia-aldean *izari* esan oi da. *Neurí* (batzuuen ez-painetan *negurí*) darabilgun euskalkietan *neurtuko* ta *neurtzen* (nonbait *neurtutene*, *neurketan* ere bai) entzun oi dira; bein ere ez, ene belaŕiok beintzat, *neurítuko* ta *neuritzten*. Noizbait ordea *neurí* ez bakaŕik izena «medida» baita aditza ere izan dela dirudi «medir» (1), *itzarí* despertarse ta *iratzarí* despertar bezala. Inoiz aditza izan ezpalitz, efiaren *neurtuko* ta *neurtzen* baino arauzkoago lirake Mendibururen *neurítuko* ta *neuritzten*. *Gorí* rojo ta *larí* apurado (adibide

(1) «*Leuſi dozo ha medido V.*» Lafaungo esakera da.

geiago ez aipatzeařen) bein ere eztira, dakigula bein-izat, aditz izan. Ófengatik enrojecer ezta *gortu* esaten, *goritu* baizik; «apurarse» ere *ez lartu*, beti *lariitu*.

M) Zabal dezagun beñiz ere gure *Morfología* (276-13...). Nuestros pronombres demostrativos de primero y segundo grado singulares y plurales *au*, *ori*, *auek* y *oriek* con sus variantes dialectales, además de significar «éste, ese, éstos, esos» pasan a significar lo mismo que los pronombres personales *ni*, *i*, *gu*, *zu* en tres casos: el primero se ha expuesto ya al tratar del vocativo (§ 433); 2.º, cuando concuerdan con un epíteto: *uste nuen nar onek* yo, tonto de mí, creía (Ituríaga), *nik esker baakotzar onek* yo, yo ingratazo (Añibařo), *nogana, ezpada, zeugana, ene Aita, Egila eta ongin maite ořegana?* ¿a quién sino a Vos, mi Padre, Criador y Amado bienhechor? (Añibařo); 3.º, cuando los tales pronombres se refieren a un verbo mediante el afijo conjuntivo *n* «que» *nazan guzti au* todo lo que soy (Añibařo)... eta abar. Mendibururen iru liburu eder auetan zuzen ta arauzko eztiran esakera batzuk ageri dira. *Ni, ark maite nauen au esan beáean ni, ark, maite nauena* (Jesusen 301-23), *nik erotzar onek esan-beáean nik erotzarrak* (I. 33"11), *niri... izandu dudan oni-ren ordez niri... bizi uratu galdua izandu dudanari* (I. 22"7). *Zuk nere Jangoiko maitagarri ořek esan-beáean zuk nere Jangoiko maitagarriak* dio (I. 22"20).

N) En el uso de *bera*, *berori* y *berau* dio *Morfologiak* (222-6) sucede que el tercer grado, el lejano, usurpa en muchas zonas el puesto de los otros dos; lo cual, como se dijo ya (§ 327), se observa en toda clase de ideas demostrativas. Mendiburuk batzuetan arauz darabilzki itz auek, noiztanka ez ordea. *Hau berau adirazten dizue* (I. 101"24) arauzko esakera

da. ¿Zenbati ta zenbati gertatu oi zaie ori bera egungo egunetan ere? (l. 96-7). Hau berau bezala ori berori esan bear zuen.

N) Geienetan aldi-izen artikulu gabeai bear bezala ezañi oi dizkie -ko: *nóizko, gaurko*. Adibide oneitan -ko oñen ordez bidezko ezten *rako* bat sartu zuen *Galdua naz ni beti ta betirako* (ll. 193"21).

O) Beste liburu batzuetan -za- ta -tza- bezala, -ta- dakusku Mendiburureneta: *nitaz* de mí, *gutaz* de nosotros. Axularek, Elkanoko Lizaáragak eta Aetzak ere -ta- esan oi dute (*Morfología Vasca* 307-27). Beronen zentzukide *za* gaitzat artuz «sólo se usa con el afijo instrumental z, dio *Morfología Vasca* (308-36) pero no con cualquier tema, sino con los pronombres personales, demostrativos y algún cuantitativo como *asko*» An erakutsiriko adibideai Mendibururen itz eder auek indaña ematen die: *nitaz ere Judasez bezala* (eztio Mendiburuk *Judastaz*) de mí como también de Judas (ll. 319-18). Adibide baten ordea *ta* oñek iges egin zion: *nor zuez jabetu liteken* (ll. 139"9), *nor zuetaz* esan bear zuelarik.

P) *Derivativos abundanciales*-en artean lau ageiri dira len aipaturiko liburuan: *ti, tsu, zto* ta *zu*. *Tidunak* ogei ta amazazpi itz irakurí ditezke: *adurti, añenti, bakarti...* eta abar (*Morfología Vasca*, página 127). Aiezaz gainera beste auek dakarzki Mendiburuk: *uríkalti* misericordioso ll. 152"29 (Iztegiak badakar ta *Morfologiarako* enuen nik aintzat artu), *nekati* paciente ll. 180"8 (au ere Iztegian bada, baina eriarena oteden ezbai bat erakutsiz), *beharti* menesteroso (Iztegian etzuen ostaturik izan) ll. 223"19 ta III. 401-18, *odolti* sanguinario ll. 365"34 (eriarena oteuden ezbaia erakutsiz ageri da Iztegian). *Belarti* ta *indarti* ere badakazki Mendiburuk, eriaren *belardi* ta

indartsu aldatuz noski: *gu guziok izandu gara ardi txar eŕebes galduak bezala; bada gure Jaunaren belarti onak eta Elizako Sakramentuetako jan-edan indarti garbiak utzirik, sasiz sasi ibili izandu gara* (III. 18"2). Enien itz purtzil auei Iztegian sarbiderik eman. *Oñazeti* atormentado (II. 317"34) ta *zorti* deudor ere (Tolosako elaztaldikoa da azken au, 556-g"oŕialdekoa) Mendibururenak dira. Eŕiarenak ote-diren eztakigu ordea.

R) *Ti* bezalaxe *tu* atzizkia ere bear ezten eraz noizean beinka erabili zuen. Erderazko «vivir» euskeraz, arauzko euskeraz, *bizi izan* esan oi da. Mendi-buruk ordea, Napaŕoako alde batzuelan oi denéz, *bizi* tu artu zuen aintzat: *gaitzetik gaitzera ibili naz ni bizi tu nazan denbora guzian* (I. 45"10). Izan ta egon-en ordez geienetan *izandu* ta *egondu* idazten zuen. *Ari izan* «ocuparse» *aritu* esaten du maiz gure gizonek. *Oŕetan haritu naz ni* (I. Prólogo. *Irakurleari* lin. 14). *Odoldu*-ren ordez *odoltu* ere Eŕonkari ta Zuberon bezala, irakurtzen diogu (III. 139-6 ta-8).

S) Erderazko «todo esto» *guzi au* esan-beárean *hau guzia* esan zuen (eztakit esaten zuen ala ez): I.-45"24.

Mordolokadak aztertu ta azaldu edo beintzat azal eratu ditugunezkero, beste onenbeste egin dezagun erderakadak gaitzat artuz.

§ 2. Irutariokoak dira edozein euskal-liburutan, guti edo gei, ediren ditzazken erderakadak: itzezkoak, kutsuzkoak eta yoskerazkoak. Frantziako euskaldu-nen *bortxaz* II. 170"29, *fite* (III. 168?), *peril* I. 145 ?, *malhur* II. 264 ? eta gainera *prest* nago I. 55"20, *iguala* contrato (la iguala) II. 243-34 ta II. 244-12 *amorez* III. 168-19, *abian* en camino III. 333-20, *kaso* *geiago* I. 68"37, *jende* I. 75"4, *trance* I. 48-27, *denbora* III.

57? ta gorago aipaturiko *eskaler* ta *person*, *ofrend* edo *present*, *ark* edo *kutx...* eta abar eta abar. One-lako itzak erabiltzea ezta pekatu, Laŕamendiren bera-ren ustez ere. Ona emen berak orain eun ta laurogei urte Mendibururi eskuz bidalitako eritzia. «Euskerari eransi zaizka gaztelaniatik, latiñetik edo beste izkun-deetatik itz asko, bañña adituaz ta oituaz euskerazkoak beziñ ongi aditzen diranak; eta oyek utzi bear eztitugu ta bear bada noiz edo beríz obeko da one-lakoak usatzea euskerazkoak baño, batez ere Elizgauzetan ta gure animen salbazioari dagozten egikarietan (1).

Erderazko kutsudun esakerak, beste liburu askotan bezain ugari ezaŕen, badakuskigu Mendibururen otoitzgai auetan.

Ona emen batzuk: A) Erderazko «¡cuánto os debemos, oh buen Jesú!» bide zedukan apaiz gartsu ark buruan, itz auek idatzi zituenean: *zenbat zor dizugun; Jesus ona!* «En admiraciones, dio *Morfología Vasca* (429-16), para traducir «cuánto, a, os, as» dejamos *zenbat* y nos valemos de *amaika, amaka, ameka*. ¡*Amaika bidar!* ¡*ameka aldiz!* ¡cuántas veces!». Los traductores de los *dialogues basques* cayeron de brucos los cuatro en el *zenbat*. «¡Cuántos no deben a estas moscas la salud!» tradujeron *zenbatek* tres de ellos, el suletino dijo *zunbatek* (p. 17-10) en vez de *jamaikak* (*amakak, amekak*) *zor die euli oriei osasuna!* Mendiburuk *jzenbat zor dizugun, Jesus ona!*-ren ordez *jAmaika zor dizugu!* esan bear zuen.

B) Erderazko «conjunciones de calco alienígena»

(1) Jesusen Biotz *maltearen debozioa*. Tolosan, 1882, págs. XXIII.

amabost dira euskera mordolotuz erabiltzen ditugun conjunción auek. (Morf. Vasca p. 490. -1, -2, -3.). Conjunción aietarik bat—zeren—askotan agertzen da Mendibururen lanetan. *Anitz amore zor dizut, zeren zuk, nere behar etziñala, ezerezetik atera ta egin ninduzun* (I. 22-20), *¿zergatik ote? zeren ezdituzten beren jan-edanak beren aldietan* (II. 196-22). *Beren jan-edanak beren aldietan eztituztelako* da arauzko esakera. Beste adibide bat: *zeren nigandik zerbait uste dezun* (I. 46-7) arauzkoa ona zein den: *neregandik zerbait uste duzulako*. Beste bi eratara ere adiarazi diteke: *neregandik zerbait uste baituzu ta zerbait uste duzu-ta*.

Z) Erdal-azkenkidun itzak ere irakurí oi ditugu liburu auetan: *asmazio* III. 217-20, *asaldazio* III. 224-24, *aienazio* III. 240-22, *tirikazio* III. 385-19, *amuñazio* III. 189-19. Itz auek irakurtzean norbaitek Mendibururen izena itz edo itx auek asko bératzen dutela uste izan dezake, batez ere euskerak orien ordezko itz garbiak badituela baldin badaki. *Asmo, asaldatze, aienaldi, tirikamen ta amuñu:* oña euskerazko itz garbi eriarenak. Au gora-bera ez uste izan Oyartzuar idazlearentzat itzalgarí direla. Aren egunetan *Lingüística yaio-beri* zan, euskerazko ikaskizunak aurzaroan zeuden. ¿Nork daki bere egunetako euskalariren batetek -zio ori euskerazkoa zela Mendibururi sinistarazi ezotezion?

D) Erderazko «¡qué deudas entonces las vues-tras!» *jorduko zuen zoárak!* soil-soilik esan-beárean *jzer zoárak orduan zuenak!* ezañi zuen (I. 45-28) ¿Oroitzen zerate, euskaltzain egoaritsuok, orain eun bat urte Donostian (Donostin ez) Noruega-aldeko melodia bat, diotenez, ointzat artuta, norbaitek egin zuen neuritz polit auezaz?

;Donostiako (1) gaztelupeko sagardoaren gozoa!

Zori onean etzuen bertsolari ark «jzer gozoa den Donostiako gaztelupeko sagardoa!» esan, zori onean ez. Gauza batzuetan eriak beraren maisuak baino geiago daki. Noizean bein erdalkutsu gabe ateratzen zituen Mendiburuk ařimenezko esakerak. *;Egiaren ařigarria!* qué asombrosa verdad! (l. 48"31). *Zer egia ařigarria* baino askozaz garbi ta txukunago da berak esan zuen ori.

E) Erderazko «en lugar de recibir vos eso bien» onelan eman zigun gure aurétko euskalari ark: *zuk ori ongi artu-lekuau* (III. 240-30). Lugar *leku* da, *toki* da, *une* da; baina «en lugar de recibirllo vos» ezta *zuk artu -lekuau*, ezta *zuk artu-tokian*, ezta *zuk artu-unean*, *zuk artu-bearean* baizik. Beste esakera batzuetan berdin egin zuen. «En lugar (edo en vez) de hacer eso» *ori egin lekuau* eman zigun (l. 46-1) *ori egin-bearean* esateko. Bein edo bein ordea euskera utsezko esakera ere irakurtzen diogu: *zure eřan eřazak egin-bearean* l. 46"14. Zori onean *egin -lekurik* ezta emen ageri.

F) Don Vicente Salva-ren erderazko gramatikan (p. 239-19) esakera au «a conocer su perfidia» ta beste au «si conociera su perfidia» berdin-berdin dirala irakurtzen dugu. Mendiburuk orien antzeko esakerak itzez itzitzultzen ditu, itzulaldi bakoitzean erderakada bat idatziz. «A traer yo esas cosas en la memoria» onelaxe erderatu zuen: *nik oriek gogoan erabiltzera* I. 56-5, onela itzuli bear zuelarik: *nik oriek gogoan erabili banitu edo nik oriek gogoan erabiliezkerro (erabiliz geroz obe)*. Ogei aldiz gutienez irakurí ditut

(1) Ez: Donostiko.

Mendibururenengan onen antzeko erderakadak. Eriak euskalkiren batean onelako esakera bat edo beste beretatz artua daduka. Ezin ukatu dezake. ¿Zeiñek eztu B. ta G^{an} onelako zerbait entzin? *Ori jakitera guk ere* (bere) *zerbait egingo genduan*. Erderazko «a saber eso» *ori jakin banu, ori jakin-ezkerro askozaz txukunago* dira maiz entzun ta esandako *ori jakitera* baino.

G) Erderaz «le ama de veras» en ordez «le quiere mucho» esan oi danez, *maite izan-en zentzukidezat* (sinonimotzat) *nai izan* maiz erabiltzen du Mendiburuk. Erderakada au ere, matxin gaŕatza Euskaleriko aloŕetan bezain ugari, dakusku Otoitzgai auetan. Ona adibide bat edo beste. *Ezdu aditzen, ezkontzari dagozkan gauzeten, guratsoen ta ongi nai diotenen eŕanik bat ere.* (l. 96-14) *Oso maite dutenen eŕanik, maite maite dutenen eŕanik...* euskerazko esakera ederak dira; beste *ori—ongi nai diotenen ori—erde-rakada* aundia.

Irugaŕen motazko erderakadak joskerazkoak dira, *Sintaxis* nolabait atzekoz auréra daukatenak. Onetan-txe, nik uste dudanez, gutienik erdalantzekotu zuen Mendiburuk bere idaztankera. Baditu bai erderaz josi-tako euskal esakerak. Ona bat edo bestetxo:

Zorionekoak gu, gogortzen ezpagara geren bide gaiztoetan (l. 171-23). Esakera au, onela josiezkerro, euskerazkoago liteke: *Zorionekoak gu, geren bide gaiztoetan gogortzen ezpagara* (1). Beste bat: *Zorioneko semea zu... egiten badezu gogoz hitzez ta eskuz egin behar dezun guzia* (l. 30"22). Euskeraz josi ditzagun itzok: *zorioneko semea zu... egin behar duzun guzia gogoz, hitzez ta eskuz egin badezazu*.

(1) Aldi baten giputzez ere gogortu ezpaginaiz esan bidezen. Orain galdua da.

Oartu beza bide nabar irakurleak esakera au—*egin badezazu* — *egiten badezu* baño askozaz jatoíago dela. (Ikus lan onetako bederatzigaén mordolokada). Besetxo bat. *Zugana nadin damuz ta urikiz* (I. 49-15). *Damuz ta urikiz zugana* (edo zuregana) *nadin* arauzkoago da. **Morfología-n**, 554-25, Moguelen itz auek *nik ereinařen galgaraua soloan aipatudoan*, esakera auen araua aipatu zan: «mejor construído estaría *nik galgaraua soloan ereinařen*, pues los afijos conjuntivos, por su oficio de poner en relación una frase con otra, deben, como los mojones, ocupar el extremo de su jurisdicción».

§ 3. Bizkaierazko itz ta esakera batzuk ere baditu gure Oyartzuaŕak.

A) *Amoretzakeak* edo amore bageak III 281”2. *Tzaka* onen beri **Morfologian** 243-31 ediren dezake irakurleak.

B) *Etzen asko* no era bastante (**Jesusen** 372-6). Aski esan oi da euskalki geienetan *asko* ořen ordez.

Z) *Nioiz ere baño hastiroago nere Missioneeitan* (I. Pról. lín. 18). Burundan ta Sakanaldean bizkaierazko beste itz ta esakera askoren artean *asti* ere esaten da, Donostialdeko *beta* ta Hazparén-inguruko *aizina*-ren zentzukidetzat. Sakandaŕak (Baŕankesak) *astitsuak* omendira, gaitzizenez, Laŕaundaŕen ezpaineitan. *Hastiz* «a tiempo» ere badakar Mendiburuk I. 1”36.

Jakin bagez I. 1-16. Geienetan *bage* erabiltzen du. Gipuzkoan geienak *gabe*, Orekan *bare*, Laŕaunen *bae*. Nere ustez yatoízko ta yatoírena *bage* da, *gabe* beronen metátesis delarik.

E) *Gizon dongea* I. 104-27. *Dongekeri* ere badakar **Jesusen** *Biotzaren debozioan* 307-13.

F) *Gitxitan: Jesusen* 141-12 ta 205-21.

G) *Mezatan en misa: Jesusen...* 372-1 ta 385-8.

H) *Niri a mí I.* 36-21 eta 46-2. Leitzan *niri* esaten omendute.

I) *Obeto obeki-ren ordez Jesusen...* 196-4.

J) *Zugana I.* 49-15, *Jesus onagana III.* 149'33, *gugandik III* 174-27, *guganatzen III.* 182-2. Napañoan askok zuregana, *Jesus onarengana, guregandik, gureganatzen...* esan oi dute. Bizkaieraz *gan* onen aur- etik bein ere ezta *en* edo *re* posesivo ori sartzen. *Gan* onezaz *Morfologian* 304,-5,-6 gañen oírialdētan zerbait esan zan.

K) *Eŕege auei* «a estos reyes» esan-beáean, Bizkaieraz bezala, *eŕege onei* dio I. 253-36.

L) *Adituez osterontzean* fuera de lo oido. I. 68'10. Bizkaian *osterantzean* esan oi da. Iztegian ere Mendibururen beste esakera eder bat ageri da: *Jan- goikoz osterontzeko gauzak* cosas distintas de Dios (III. 107-27).

M) *Aurtasun loiaren ondotik etorri zen nere gaztetasun loiagoa* I. 45'20. *Loia-ren ordez zikiña* esaten da Napañoan ta Gipuzkoan, erderazko «sucio» adierazteko. Beste bi itz oriek *aurtasun ta gaztetasun* lenago aztertuak daduzkagu.

§ 4. Aipagarfi deritzaiet Mendiburenganikako esakera auei:

A) *Aldian aldikoa egin dut nik* III. 56'22.

B) *Ematen nizun nik zuri emanalean os daba yo a vos cuanto se podía dar.* II. 306-26. (V. *ala* en el Diccionario).

Z) *Anitz eta agitz geiago* I. 54-2.

D) *Aseak izan bear dute.* II. 140'8. Gure egun auetan norbait *izan bear dira* idazten asi zan eta ya- raitzaile zintzo asko *izan* ditu. Ikusi onetarako **Morfología Vascan** (259-24...), *aseak izan bear dira* baiño arauzkoago dela *aseak izan bear dute* esatea.

E) *An eran zion norbaitek Jesus nekatu maitagariari berari* II. 328"9. Ar ditzagun emen Morfoloziatik (223-3) itz auek: el artículo que se junta al intensivo de tercer grado *ber* se dice también con la palabra: en vez de *Jainko* o *Jaungoiko berak* leemos y decimos *Jainkoak berak* (Joannat. *Sainduen* 55-1), *Jaungoikoak berak* (Añib. *Esku-lib.* 17-4) el mismo Dios... lo cual sucede también con elementos declinativos aplicados al pronombre intensivo. *Nire onta-sunean berean* «en mi misma bondad» se lee en el suplemento del N. T. de Leizarraga (10-2) y *harenganik beraganik* de aquel mismo (Ibid. 98-16). Mendiburuk noizean beinka ânzten zuen irakaspen au, onelako esakera akasdunak eratzeko; *Jangoikotasun beraren bitzitza* III. 146-13.

F) *Zer gerta ere* por lo que pudiera suceder II. 137"29. Bizkaian bi eratara belaíratu zait esakera au: *zer yazoko edo zer yazoko bere ta zer yazoan.*

G) *Dena dela* sea como fuere III. 49-51. Iztegian batu nuen euskalki askotako esakeratxo au. Gipuzkoako Goierín Bizkaiko *dana dala* esan oi da.

H) *Badakit ezdela eder* ya sé que no sienta bien Jesusen... 241-5. *Orenbat balio duen Bihotza erosita nere egiteko* para comprar y hacer mío el corazón que tanto vale Jesusen... 86-6.

I) *Ongi zatoz os avenir* I. 287"10.

J) *Gure Jaun etorkizuna* nuestro futuro señor I. 159-7. *Morfologian ere bada onen antzeko adibide bat* (111-25).

K) *Ezdabaida batean* en un momento III 134"32.

L) *Lenen gain* sobre los anteriores I. 40-35.

M) *¡Egiaren arigatia!* ¡qué asombrosa verdad! I. 48"31. Erderakada baten ondoan aipatu, zan au.

N) *¡Bat ere!* erderaz ni uno, *bat ere ez-en* or-

dezko esakera da. Bizkaieraz ostera esakeratxo oni dagokion *bape* (*bat-bere* uldua) erderazko «alguien, persona de importancia» bezalatsu erabili oi dugu: *bape dan gizonak eztau olangorik egin bear. Zerbait dan gizonak eta bape dan gizonak bat dira.*

N) *Onez a buenas II. 386-30. Onean ta onez-on ta onez onean alde askotan zabal dira.*

O) Noizbait *ona nola* esan beárean *ara nola* irakuríaaren (I. 2-2) ederki dárakuskigu Mendiburuk amáretatik bederatzitan itz erakusle äuen iru maiłak. *Zer gerta ere, ona ni prest zuk nai dezuna gaur egiteko* I. 28”29. *Orá nola zijoan gure Jesus maitagaría* II. 313”33. *Órako aří oriek* II 62”28. *Onen otz egoteko* para estar tan fríos. III. 72”16—*Onenbat su biziren bazterean* III. 72”17—*Ez ofen gogoňak* no tan duros I. 40-20.

P) *Ezdedila ustel atera oraingo nere ustea* que no salga fallida mi idea de ahora. I. 175-18.

R) *Nonbait* sin duda. Ona emen esakera osoa: *nonbait lan andia da zuek eskutartean dakartzuen oraingo lana* II. 290”32. Bi leño bérago esakera polit au dakusku: *¡nola ere!* erderazko ¡claro estás! bezalatsukoa.

S) *Eznazue zuek ez sinistuko ni, no me creeréis vosotros a mí.* II. 312-1. *Eztidazue neri sinistuko* esan oi du Gipuzkoan eřiak. Mendibururena ordea obetzat, esakera jatoňagotzat dadukat.

T) Izen bikoitz-zale utsa zan gure aurétkoa. Irukoitzak ere baditu «nombres compuestos» auen artean. Ona adibide bat edo bi: *gurutze astun luzearekin jaiki-erori zerabiltela edo iltzez esku-oñak zulatuz edo burdinezko lantza gogoňarekin bularbihotzak uratzen ziozkatela* III. 133”2. *Nere ez-pain-mihi-ahoak* III. 332-8. (Ikus Morfología 414-15).

Tx) Erderazko «todo, todos» euskeraz bear bezala adieraztea arazo neketsu samára da. Mendiburuk bezain egoki lan au betetzen duen idazlerik eztakit bat-kartxo bat oteden. Aipatu ditzagun bere adibide batzuk, bat edo beste lenago ere lan onetan erakutsi izan ařen. **Nazan hau aingeruz inguratua todo (yo) ro-deado de ángeles:** II. 234"2. **Makurtasunez... nintzan au betea todo (yo) lleno de imperfecciones:** II. 73"15 —**Beazunez zena mindua agriado todo él de hiel** III. 22-21 —**Barkatu behar dituzu diranak** tenéis que perdonar todos I. 29-3. Bere **Jesusen biotzaren-liburu**an beste auek dakarzki: *garanak* todos nosotros 339-7 (*garenok* askozaz jatorago), *gaurgero zurea nai dut izan, nazana* en adelante quiero ser todo vuestro. Liburu au gure egunetan argitaratu zuen azkoitiar Aranak esakera au etzuen ongi ulertu, nere ustez beintzat. Bere elaztaldian onela dakuskigu itz oriek *gaurgero zurea nai dut izan nazana* en adelante quiero vuestro lo que he sido. Zentzunik ere eztu.

Bilboko gelune (estazio) baten, Atxurikoan, aři zurizko gizon baten bêko aldean itz auek agéri dira: **Danen aurka.** «En contra de todos» esan nai zuen esakeratxo ořen egileak eta «en contra de los que es» atera zitzaion. Mordolokada au euskera jatorrez one-laxe adierazi diteke: 1.^º, *guzien (guztien) aurka*, 2.^º, *ororen aurka*, 3.^º, *ziranen aurka*.

Ona nik ere, gaztetxo nintzalarik, **Andra Maria Begonakoari** zer kanta-arazi nuen:

*Tokitxu bana,
Ama laztana,
or goion gertu bageuko,
danok pozarén,
goratzeařen,
gengokez noznai ilteko.*

Ona zenbat eratara esan ditezken erderazko «todo» ta «todos» *izan* aditza bitarteko deilarik.

- 1.^a Todo estoy mojado *nazan au bustirik nago*.
- 2.^a Todo estuve inquieto *nintzan au artega nengoen*.
- 3.^a Todo estás nervioso *azan ori urduri ago*.
- 4.^a Todo estuviste tranquilo *intzan ori artetsu engoen*.
- 5.^a Todo está dispuesto *denau gertu dago*.
- 6.^a Todo *denori...* (Se entiende todo ese...).
- 7.^a Todo *dena...* (Todo ello).
- 8.^a Todo estuvo muy bien *zenau oso ongi zegoen*. (Me valgo de flexiones de Mendiburu).
- 9.^a Todo *zenori...* lit. eso que era.
- 10.^a Todo *zena...* lit. lo que era.
- 11.^a Todos estamos aquí *garanok emen gara*.
- 12.^a Todos estuvimos allí *giñanok an giñan*.
- 13.^a Todo está usted pesaroso *zarán ori damutua zaude*.
- 14.^a Todo estuvo usted animoso *ziñan ori gogotsu zeunden*.
- 15.^a Todos estáis contentos *zaraztenok pozik zaudezte*.
- 16.^a Todos estuvisteis alegres *ziñaztenok alai zeundezten*.
- 17.^a Todos (ellos) están aquí *diranak emen daude*.
- 18.^a Todos (esos, éstos) están con salud *diranok osasunez daude*.
- 19.^a Todos (ellos) estaban conmigo *ziranak nerrekin ziran*.
- 20.^a Todos (éstos o esos) estaban en casa *ziranok etxeán ziran*.

¡Ogei esakeral! ¡Guziok eriarenak eta or-emenka

esanak eta entzunak! Eta au gora bêra askok, idazle geienak ere bai, «todo» amabikoitz ori beti *dena* edo *dana* esan oi dute eta «todos» zortzikoritz, bakoitza bailitzan, beti *denak* edo *danak*.

§ 5. *Aurizki, artizki* ta *atzizki* (prefijos, infijos y susfijos) batzuk Mendiburuk nola darabilzkien gogoz ikusiko edodute irakurleak. Aurizkirk (aipatzekorik beintzat) bat ageri da: *ez* aurízkie. Morfologian onelako ezdun itzik amasei irakur ditezke: *ezarian* disimuladamente... *ezizen* apodo... ta abar (94-32...). **Otoitzgai**-etan beste bi auek dautza: *hitz ezleun bi eñaten* III. 172"27. (*Ezleun* au ta *latz* bat dira). *Juez ez-zuzen Pilatos* (II. 377-20).

Artizki-artean ere bat bakaña ar diteke aipagarítzat: *dan*. Ona gai polít onezaz lenagotik irakatsia: (este infijo) se usa sólo en ablativo y con vocablos que designan tiempo. En muchas comarcas y tal vez en algún dialecto entero (nos lo dirá el cuestionario cuando sea recogido) está hoy desgraciadamente casi en estado fósil. Se han podido recoger estos ejemplos: *berladanik* desde luego, *aitzinadanik* de antemano, *lendanik* desde antes... beste amabi itz ageri dira *Morfología Vasca* 300-13...). Mendiburuk iru auek dakarzki: *Noizdanikakoa* I. 8-19, *oraindanik* III. 168"36, *barfanik* III. 54"32. Ya ditzagun emen ere liburu artako itz auek: «Es lástima que digamos *gaurtik*, *atzotik*, *biartik*, *noiztik*... cual si fueran vocablos de seres locales, como *ortik*, *nondik*, *emendik*, *goitik*... etc. (*Morfología Vasca* 301-11).

Azter ta erakuts ditzagun orain **Otoitzgaietako atzizki** agerienak.

1.^º **Ar.** Lendanik esana dago (*Morfología Vasca* 228-20), en los dialectos AN y L se usa el afijo *ar*, pospuesto al infinitivo nominalizado, para denotar la idea «a punto de». *Iltzea a punto de morir*, *lertzea*

a punto de estallar. En los mismos dialectos y en BN se usa, y quizás más, *er* pospuesto al mismo infinitivo: *egiter* a punto de hacer, *eráiter* a punto de decir, *iltzer* a punto de morir. ¿Vendrá de *egitera*, *eráitera*, *iltzera* a hacer, a decir, a morir? Ona Mendibururen adibide batzuk: *galtzea* *nitu* II. 127-8, *okabilka lertzea* *diote...* *aurpegia* II. 309"4, *naigabez itotzea* *zitzaion...* II. 351"10, *an erotzea* *zen* II. 359"14, *azot-ukaldiz iltzea* *nindutenetik* II. 370-10. Ar-dun beste itz bat dakar: *kaltear*. ¿Eriarena oteda? Ona bere itzak: *etzen ez orela kaltear gelditu Tobías gaztea* II. 152-34. *Onen kaltear ez gelditzeagatik* I. 5"33. Toursko Iztegian Mendibururen *kaltear* ta Axulañen *kaltiar* biak ageri dira.

2.^º -ei. Ona Mendibururen itz polit batzuk: *Jesusek askotan eman diela eriei osasuna, goñei adiera, itsuei ekustea, mutuei hizketa ta illei bizi* II. 325"7. Gipuzkeraz, ango Erizkizundiak dionez, lau eri soiletan esaten da *gizonei* a los hombres (Bedayon, Zumañagan, Elosun ta Usurbil), berogeitako amazazpitako gizonai.

3.^º -gin. Atzikizki onezaz ona *Morfología Vasca* (76-8) diona: «también se agrega a nombres y denota persona agente, como todos los sufijos de este segundo grupo de derivativos nominales». Adibide asko ageri dira an: *oialgin* pañero, *labagin* hornero, *langin* operario, *lugin* agricultor, *zurgin* carpintero, *argin* cantero... ta beste batzuk; baina Mendibururen *begiragin* bezalakorik bat ere ez. ¿Eriarena oteda? Ona bere adibidea: *anbat ango begiragin gogofen artean* entre tantos crueles espectadores de allí III. 24-5.

4.^º -giro. Atzikizki oni bi zentzun ematen dizkio eriak: temperatura ta temporo: *bidagiro* 1.^º, (G) tiempo bueno para andar; 2.^º, (AN) estado del camino;

edagiro (AN, G, L), *edangiro* (L) tiempo que ocasiona sed. *Edagiro* nonbait soineko naiz belaŕak edatzeko, iraurtzeko, zabaltzeko giroa ere bada. Mendiburuk, Tours-ko Iztegian oartu zenez, beste zentzun auek ere ematen dizkio: manera, traza, especie: *gizagiro ori esa* manera de hombre II. 325-32, *konziliagiro gaizto bat* una especie de concilio malvado II. 290-23, *eramagiro ain itxura txaŕekoan* en una tan impropia manera de llevarle II. 314-18, *soldadutzaren erako jendagiroak* II. 362-24, *Jesusen azkeneko nekagiro ori* II. 363-16, *zure langiro eŕebes onekin batean* III. 240"24, *beste eguraldigiro gaistoa* III. 270"22. One-tan Mendibururen idatzankera enuke eredutzat, yáraigaritzat, erakutsiko.

5.^º -ka. *Morfologian* ageri dan adibide baten antzera — *pelotaka ederá* hermoso partido de pelota (236-13)—Mendiburuk *ka* adverbial izatetik «derivativo nominal» egin zuen: *oraindañoko orien eskukak, listukak, illetirakak* las bofetadas, escupitajos, estirones de pelo que hasta entonces hicieron esos II. 357-11.

6.^º -ki, erderazko «-mente». *Morfologian* lo tienen todos los dialectos a excepción del B» esan nuen. Sirvele de tema un adjetivo o algún raro sustantivo en sentido adjetival. En dialecto B hace sus veces el sufijo *-to*, pero formando menor número de palabras. Adibidetzat ogeitik gora itz erakutsi ziran. Bi dakarzki Mendiburuk an eztiranak: *baldanki* abandonadamente I. 364-8 ta *uríkalki*. Au ordea ezta ez eriaren *ez arauzko* ez euskerazko. Ona bere itzak: *¿nola gelditu zara... orain zauden eran? ta nola ořenbatzikintasunez ingurutua ta ořen uríkalkia?* Azken-itz au egun aietan norbaitek eratua bidezen. Eriak *erükari, uríkari, dolugari* ta besteren bat esaten ditu erderazko «miserio, miserable» adiarazteko, ez ordea *uríkalki*.

Lentxeago *uríkalti* aipatua izan da. ¿*Uríkalti* hora ta *uríkalki* au bat otedira? Ez, aita baten semeak bai, baina bana: *uríkalti* misericordioso ta *uríkalki* miserable izateko sortu zituen Mendiburuk; ez bata ez bestea eztira ordea bizi, zori onean eríak eztitu beretu.

7.^º -ko, «derivativo de tiempo» dela esanez eta beronen zentzuna erderazko «durante» dela gainera-tuz, ikus diteke atzizki au *Morfologian* (121-8). Ango adibide bat *Mezakoan* askotan aipatzen digu Mendibu-ruk: *Hau ematen zaionean edo Mezakoan* III. 168"8. *Zuen afaritakoan* mientras vuestra cena II. 316"21.

8.^º -lako. Atzizki onezaz au esan zan **Morfología Vascan** (361-12), «2.^º, significa de que cuando le sigue un nombre o pronombre». Bizpairu adi-bide eman zizkigun Mendiburuk: *didalako ustean* en la idea de que me ha de..... II. 323"2; *dezakezulako uste osoan* en la plena convicción de que podéis..... II. 322"21.

9.^º -naz darabil Mendiburuk, Bizkai ta Zuberoar batzuk bezala, -nez-en ordez (V. **Morfología Vasca** 368-22): *San Bernardok dionaz* según dice San Bernardo III. 357"24, *berak egiñikako gauzak adirazten dutenaz* según lo manifiestan cosas hechas por él I. 58"16.

10.^º -netan. *Nean* admite plural y es *netan* «cuando, las veces que» erakutsi zan **Morfologian** (367-23). An ageri den adibidea Mendibururena da. Askotan erabili zuen atzizki eder au: *jolasdunekin arkitzen diranetan* I. 43-14, *aldartea ematen dionetan* I. 35"16, *niganatzen ziñanetan* las veces que so-lías venir donde mi I, 194-5, *komuniatzen denetan* las veces que comulga III. 236-33.

11.^º -sko ta -skote. Emezortzi itz ageri dira **Morfologian** (206-11) -sko ori dutenak: *aíainsko, be-*

*lusko... ta abar; beren artean Mendibururen bat: ilunko «algo triste»; lodisko ere badakar (III. 24"7). -skote dunak bi dautza liburu artan, Oyartzuarí ikasiak: gorskote algo sordo III. 202"27 ta andiskote grande-
cito III. 255"15. Ona bestetxo bi; zikinskote algo sucio III. 172-27 ta eriskote algo enfermo III. 328"8.*

12.^º **-tako.** *Tzat atzizkia azaltzean itz auek esan ziran Morfología Vascan 246-28): «es elemento figurativo o hipotético que equivale a una de las muchas acepciones de la proposición «por». Mendiburuk *tzat* au aldiz onelaxe erabiltzen du, aldiz ordea *tako* artzen du beronera ordez. Ona non gatozen zenbait presentekin Eŕegetzat hau eta geren Jainkotzat ezagutzen I. 254"5—Eŕege erotako artzen zutela III. 352-5—Ontzat artzen dio III. 383-30—¿llerazi obendundako, obenen pitsik ere ezduela? II. 336"24. Morfología Vasca 246-36 *tzat-en* ordez *tzak* nonbait esaten dela darakus: baseŕikotzak por aldeano (Per. Ab. 117-7), eskuerakutsitzak como muestra de agradocimiento (Lar. Test. 255-22). Mendiburuk ere orelakoentzak dio «para los como ese» I. 271-28.*

13.^º **-tasun.** «Mendiburu, dio Morfologiak (17-9) que tan hábilmente llegó a manejar el idioma, tuvo el curioso capricho de hacer sustantivo el sufijo derivativo *-tasun*. *Gauza bakar bakar bat dira Jesusen bi tasun oriek* (III. 156-4) Bere uéna Ubillos-ek noizbait orelaxe erabili zuen: *tasun oriei dagozten gauza guziak* (201-12). Tasun au atzizkitzat artuz itz beri polit bat edo beste ere eratu zituen Mendiburuk. Ona bat **zarantasun aren alde.....** II. 320-23. Badu Mendiburuk *tasundun* beste itz beri polit bat ere, berak eratua dirudien: *zertakotasuna el fin, el motivo* III. 142"26.

14.^º **-tzekotan.** *Oiek zuei begiratzekotan en*

caso de mirar esos a vosotros II 186^{”1}. Onelako esa-keretan atzizki onek erderazko «a condición de» mai-zago adiarazten du (Ikus *Morfología Vasca* 377-1).

15.^º -z, por medio de. Zentzun onezaz eztiot eria-ri z atzizkia bein ere entzun. Eriarenak dirudite ordea Mendibururen iru adibide auek: *¿zenbat aldiz deitu dizu zere Jangoiko maitagarriak, bein izar oitatiak bataz bein besteaz?* ¿Cuántas veces os ha llamado vuestro amable Dios ya por medio de una ya por me-dio de otra de esas estrellas? I. 246^{”4}. *¿Nori nik hitz egiten diot, dio Jangoiko maitagarriak Jeremias Profetaz?* ¿A quién hablaré yo, dice el amable Dios por medio del Profeta Jerémías? I. 249^{”30}. *Zere Aitak Isaiasez zuri emanikako izena* el nombre que os dió vuestro Padre por medio de Isaías. I. 282-28.

§ 6. Bere izpeñiak (neologismoak) erakusteko as-moa ere banuen, baina itz auek beste askok eginda-koen ondoan noizbait argitaratuak izango direlako, naiago izan dut nere lan luze oni amaizat berak ida-tzitako zeapan (descripción) eder au erakutsi.

«Ezi bageko zaldi bero bizi bat bezala da gaizkiz gaizki dabilen bekataria. Lotzen edo itsasten bazaiz-ka zaldi bero ezigabeari zenbait mandeuli, edo ekus-ten baditu bera atzitu edo arápatu naiez dabilitzan gizonen batzuek, ematen dio bertatik lasterari ta irin-tziari, sartzen da lenbait len bere laŕartean, sartzen da eŕeketan, sartzen da urean, edo gizon orien eskuetatik edo eulien ortzetatik libratzeko, ona dela deritzan edozein zokotan edo tokitan; ta gizon orien eskuetatik iges egiteagatik ezdu beiratzen malkortegira, ezdu begiratzen itofokira edo ezurén auts-bidêtara; ta naiz autsi ta naiz ez aldi orietan bere beso-zankoak, iglesia ta iglesia baizik ezdu gogoan zaldi ero ezibageak (1).

R. M. AZKUE-K.

Bilbon 18-III. 1927.

(1) *Otoitzgayak.* III. 205^{”13}...